

# 40

1981-2021

IV Jornadas

**Innovación Educativa**

**en Comunicación**

**y Alfabetización Mediática**

**Komunikazio Hezkuntza**

**Berriztatzeko eta**

**Alfabetatze Mediatikoko**

**IV. Jardunaldiak**

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



IV Jornadas  
**Innovación Educativa  
en Comunicación  
y Alfabetización Mediática**

*Komunikazio Hezkuntza  
Berriztatzeko eta  
Alfabetatze Mediatikoko*

IV. Jardunaldiak

LIBRO DE COMUNICACIONES  
KOMUNIKAZIO-LIBURUA

Jesús Pérez Dasilva  
Koldobika Meso Ayerdi  
Simón Peña Fernández  
**(Ed.)**

*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Jornadas de Innovación educativa en comunicación y alfabetización mediática (4ª. 2022. Leioa)**

IV Jornadas Innovación educativa en comunicación y alfabetización mediática [Recurso electrónico]: libro de comunicaciones = Komunikazio hezkuntza berrizatzeko eta alfabetatze mediatikoko IV. Jardunaldiak : komunikazio-liburua / Jesús Pérez Dasilva, Koldobika Meso Ayerdi, Simón Peña Fernández (ed.). – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea : PDF (116 p.)

Textos en euskara, español e inglés.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-458-5.

1. Enseñanza – Innovaciones – Congresos. 2. Periodismo – Estudio y enseñanza. 3. Medios de comunicación social. I. Pérez Dasilva, Jesús Ángel, coed. II. Meso Ayerdi, Koldo, coed. III. Peña Fernández, Simón, coed. IV. Tít.: Komunikazio hezkuntza berrizatzeko eta alfabetatze mediatikoko IV. Jardunaldiak.

(0.034)37.012(063)

(0.034)070.489(063)

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

*Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua*

ISBN: 978-84-1319-458-5

## Batzorde Antolatzailea / Comité Organizador

### UPV/EHU

*Kazetaritza Saila / Dpto. Periodismo / Journalism Department*

*Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación / Faculty of Social and Communication Sciences*

### Gureiker

*Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa-Taldea (A) (IT 1112-16) / Grupo de Investigación del Sistema Universitario Vasco (A) (IT 1112-16) / Research Group of the Basque University System (A) (IT 1112-16)*

*Proyecto I+D «Noticias, redes y usuarios en el sistema híbrido de medios» (2019/2021) RTI2018-095775-B-C41, Ministerio de Economía y Competitividad (MINECO)*

*Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)*

*Irati Agirreazkuenaga Onaindia*

*Maidor Eizmendi Iraola*

*María Ganzabal Learreta*

*Ainara Larrondo Ureta*

*Terese Mendiguren Galdospin*

*Koldobika Meso Ayerdi*

*Simón Peña Fernández*

*Jesús Ángel Pérez Dasilva*



# Índice / Aurkibidea / Index

**Ander Goikoetxea Pérez & Hannot Mintegia Beaskoa**

- ▶ Flipped classroom metodologiak eskaintzen dituen abantaila pedagogikoak

**María del Mar Rodríguez González, Iñigo Marauri Castillo & Guillermo Gurrutxaga Rekongo**

- ▶ Conocimiento de la actualidad informativa a partir de la participación del alumnado que ejerce de periodista y lector crítico

**José Manuel Meza Cano, Cinthia Aranda-Solis, Blanca Olalde Lopez de Arechavaleta & Santiago Palacios Navarro**

- ▶ El papel del procesamiento dual de la información en la discriminación de noticias falsas

**Hannot Mintegia Beaskoa & Ander Goikoetxea Perez**

- ▶ No trespassing: Arau, traba eta mugen bidezko metodologia sortzaile bat kazetaritza gradurako

**Javier Díaz-Noci**

- ▶ Learning digital journalism: Analysing web media in comparative perspective to learn what is quality in digital communication

**Antonio Vaquerizo Mariscal**

- ▶ El sistema híbrido vehículo de comunicación educativa

**José Manuel Simões**

- ▶ The pedagogical role of ethics and deontology for future professionals of communication and media: How to develop and nourish virtues

**Terese Mendiguren, Jesús Ángel Pérez Dasilva, Koldobika Meso Ayerdi, Simon Peña, Ainara Larrondo & María Ganzabal**

- ▶ Desgaitasuna duten pertsonen Komunikazio ikasketetako prestakuntzari buruzko gogoetak

**Javier Díaz-Noci**

- ▶ Teaching Communication (and Journalism) History from Social History Theory: Some proposals





# ***Flipped classroom* metodologiak eskaintzen dituen abantaila pedagogikoak**

## *Pedagogical advantages of the Flipped classroom methodology*

**Ander Goikoetxea Pérez**

*Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (España)*

ander.goikoetxea@ehu.eus

**Hannot Mintegia Beascoa**

*Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (España)*

hannot.mintegia@ehu.eus

### **Laburpena**

Kapitulu honetan ikasketa alderantzikatuan (edo *flipped classroom*) oinarritutako eskola praktikoko baten esperientziak, ondorioak eta hausnarketak azaltzen dira. Ikasketa-metodologia hura erabili aurretik, 2018an egindako ikerketa txiki baten jarraipena da. Ikerketa horretan, ikasleek ikasteko beren kabuz bideoak ikusteko duten ohitura ezagutu genuen. Ikasketa-alderantzikatuaren erabilera bera da oraingoan mahai gainean ipintzen duguna. Metodologia horren funtsa ‘Multimedia eta Transmedia Narratibak’ (aurreko planean ‘Multimedia Edizio eta Produksioa’ deitua) irakasgaiaren erabili dugu 2018tik aurrera bigarren eta hirugarren mailetako Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) kazetaritzako ikasleen artean. Irakasgaiaren xedea multimedia eta transmedia produkzio baten edukiak web-plataforma batean prestatu eta editatzeko behar den ezagutza eskuratzea da. Haren berezitasunak direla-eta, ikasleek hainbat erreminta erabiltzen ikasi behar dute materiaren edukia behar bezala garatzeko. Halaber, irakasleak bi eginkizun burutu behar ditu: ikasgaiaren lagungarri izan daitezkeen bideoak aukeratu eta ikasleei eskaini, eta, eskolan gidari gisa ibili. Beraz, ikasketa prozesua norberak hasten du, izan ere, *software* ezberdinen erabileraren ezaguera ikasleak berak etxean jasotzen baitu. Horrek ahalbidetu du eskola-orduetan informazio iturriak erabiltzeko oinarritzko trebetasunak garatzea, zentzu kritikoarekin ezagutza berriak eskuratzeko eta teknologien arloan oinarritzko prestakuntza lortzea, bereziki informazioaren eta komunikazioaren eremuan. Berez, saioetan mezuan zentratu gara, eta ez horrenbeste berau adierazteko tresnetan.

Ziurtatu dezakegu teknologiaren garapenak -hala nola gizartearen ohiturak- horrelako ikasketa metodoa ahalbidetu duela. Ostera, *flipped classroom* metodoak eskolak edota unibertsitateak berak dituen mugak gainditzeko aukera eskaini digu, hala-nola SARS-CoV-2 birusak azken bi urteetan eragindako egoerari aurre egiteko ere. Era berean, ikasleak egungo lan-merkatuan erabiliko dituen lanabesak ezagutzeko aukera ere izan du.

## **Gako-hitzak**

*flipped classroom, multimedia, erremintak, ikasketa-metodologia, ezagutza*

### **Abstract**

*This chapter describes the experiences, implications, and reflections of a practical school based on flipped classroom. This is a follow-up to a small research conducted in 2018 before using that study methodology. During this investigation, students habits of watching videos to learn on their own were analyzed. The essence of this methodology has been used since 2018 in the subject 'Multimedia and Transmedia Narratives' (called 'Multimedia Editing and Production' in the previous plan) among second and third year journalism students at the University of the Basque Country (UPV/EHU). The aim of the course is to acquire the knowledge needed to prepare and edit the content of a multimedia and transmedia production on a web platform. Due to its peculiarities, students need to learn how to use a wide variety of tools to develop the content of the subject properly. The teacher also has two tasks: select and offer helpful videos for the lesson and act as a guide in the school. So the learning process begins on its own, as the student acquires the knowledge of using different softwares at home. This has enabled them to develop basic skills in the use of information sources during school hours, acquire new knowledge in a critical sense and acquire basic training in technology, especially in the field of information and communication. Naturally, the sessions are focused on the message, and in a minor way on the tools to convey it.*

*Technology development and society habits have made such a learning method possible. However, flipped learning method has allowed to overcome the school or University limitations by itself, as well as dealing with the situation caused by the SARS-CoV-2 virus in the last two years. The tools that students will use in the current job market have also been learned.*

### **Keywords**

*flipped classroom, multimedia, tools, learning methodology, knowledge*

## 1. Sarrera

Hezkuntza garaikideak bizi duen arora egokitu behar du baldin eta ezagueraren transmisioa bermatu nahi duen. Gaur egungo hezkuntzari dagokionez, internetek eskaintzen dituen baliabide anitzak nabarmendu beharra dago, izan ere, 1969an ARPANET izenpean erabilera militarerako sortutako komunikazio-sareen multzo deszentralizatuak eragin osoa du gure bizitzako arlo guztietan. XXI. mendearen hasieran *e-learning* ikasketa sistema hedatu zen; horren bidez irakasleek eta ikasleek ingurune digital batean teknologia berrien eta ordenagailu-sareen bidez parte hartzen hasi ziren aurreneko aldiz, internetek eta bitarteko digitalek ematen dituzten erraztasunak modu trinkoan erabiliz. Hezkuntzaren esparruan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera laguntza didaktiko gisa hasi bazen ere, gaur egun askoz zeregin garrantzitsuagoak hartzen ditu, esate baterako, hezkuntza-eskaintza gehiago izatea, ezagueren trukea gaitzea eta ikaskuntza-komunitateak konektatzea. Horrela sortu zen urte batzuk beranduago flipped classroom ikasketa metodologiaren loraldia.

Alderantzizko gela irakaskuntza-eredu berri eta parte-hartzaile bat da, non ikasgelan tradizioz egin diren jarduerak, esaterako edukien aurkezpena, etxeko jarduera bihurtzen diren, eta modu berean, etxeko lanak egiten dituzten jarduerak gelako jarduera bihurtzen diren (Sohrabi, B. eta Iraj, H.: 2016). Ezaugarri horiek direla eta, eredu ikaslea ardatz duen ikaskuntza aktiboarekin lotutako jarraibide gisa kokatu da. Gela alderantzikatua terminoa, jatorriz Lage, Platt eta Tregliak *inverted classroom* (IC) gisa, 2000. urtean sortua izan zen, eta ekonomiako irakasgaiaren ezarritako klase-estrategia zehazteko erabili zuten, nahiz eta kontzeptu orokorrago batetik abiatu ziren (Olvera, Gáme eta Martínez-Castillo, 2014).

Ikerketa batzuen arabera, iraulitako ikasgelek hezkuntza-eremua positibo asko ematen dituzte; beste azterketa batzuek, ordea, arreta jartzen dute iraulitako geletan lotutako mugetan. G. Akçayirek eta M. Akçayirek (2018) ondo bildu dituzte ikasketa metodo honen aukera eta mugetaz aritzen diren ikerketa nagusiak. Turkiarrek iraulitako gelei buruz 2016. urtearen amaiera arte argitaratutako 71 ikerketa azterlan identifikatu eta sistematikoki aztertu zituzten, bai eta ikasketa-metodologia honen erronkak nondik datozen erakutsi ere:

For example, in the flipped model student learning achievement and satisfaction may be enhanced (Missildine, Fountain, Summers, & Gosselin, 2013); students may be more satisfied with the flipped method; and it can be more economical than traditional instruction (O'Flaherty & Phillips, 2015). However, challenges can include more required time to redesign the course as a flipped classroom (Schlairet, Green, & Benton, 2014), low self-regulated behaviors by some students (Sun, Wu, & Lee, 2017), and the resulting failure of some students to properly schedule their time to comprehend the out-of-class learning content (Lai & Hwang, 2016).

(Akçayır, G. eta Akçayır, M. 2018: 334-335)

Literaturaren arabera, beraz, iraulitako irakaskuntza-ereduak aukerak eta erronkak dakartza. Indarren artean dugu ikasle eta irakaslearen artean sortzen den harreman-eredu berria. Mehatxuen artean, ostera, ikaslearen gain ohituta ez dagoen lan-zama bat uzten zaion heinean, ikaslea motibatzen asmatu behar dela, motibatuz egon ezean, emaitzak kaxkarrak izan daitezkeelako. Akçayır eta Akçayırk aipatzen dutenez, oro har, hezkuntzan inbertitutako ereduak emaitza akademiko positiboak sortzen ditu. Beraiek aztertutako ikasketa gehienek adierazi dute *flipping* ereduak hobekuntzak sustatzen dituela ikaslearen ikaskuntzan. Gainera, ikertzaileek eredu horren abantaila ugari eman dituzte (hezkuntza-premia, ikasteko motibazio hobetua, ikaslearen jarrera positiboak). Baina, euren aburuz, orain arte ez dago ebidentzia nahikorik orokortzea justifikatzeko. Ikerketa osagarriak behar dira eredu horren abantailak aztertzeko, eta haren erabilera zabalagoak ikaslearen konfiantza, konpromiso

eta jarrera positibo handiagoa lortzea ahalbidetuko du (2018: 343).

Vidal Ledo, Rivera Michelena, Nolla Cao, Morales Suárez eta Vialart Vidal mediku kubatarrek ikasketa alderantzikatuak gizakiaren adimenean nola eragiten duen azaltzen dute hainbat adituen ikerlan aztertu ostean:

El aula invertida asume la lógica del proceso de asimilación del ser humano que considera la interacción entre la orientación del contenido, (habilidades y conocimientos), la ejecución y el control; y en este proceso quedan integradas las operaciones racionales del pensamiento, las habilidades propias de las TICs y los contenidos a abordar en cada aprendizaje. En ocasiones pudiera percibirse como que con el uso de las tecnologías el rol del profesor es auxiliar o secundario, pero al enfatizar en la necesaria orientación del profesor para el estudio y el trabajo independiente (ejecución del autoestudio y de las tareas prácticas ya sean presenciales o de preparación a la actividad presencial en los momentos que se sugieren en el aula invertida), así como en el control de la ejecución del proceso, se destaca su función y se propicia la necesidad de preparación de los docentes en el contenido a tratar y en el uso de las tecnologías, la internet y las redes sociales.

(Vidal Ledo, M.; Rivera Michelena, N.; Nolla Cao, N.; Morales Suárez, I. R. eta Vialart Vidal, M. N. 2016: 687)

Ikasketa alderantzikatu metodologia erabiltzeak, ikasle eta irakasleen inplikazioaz gain, erakundeen inplikazioa eskatzen du; izan ere, multimedia-baliabideak, ikaskuntza-objektuak, ideiak eraiki eta eztabaidatzeko foroak eta abar erabili behar direlako. Halaber, ikasleari zuzendutako estrategiak eta metodologiak ondo definitu behar dira, jarduera eta lan aktiboak eta lankidetzakoak sustatuz, ikasle bakoitzaren beharretara egokituak. Hala, helburu hezitzaileak lortu eta edukiak hobeki ulertzeko, irakasleak laguntza edo rol bat izan behar du. Eredu horrek funtsezkotzat hartzen ditu ikaslearengan garatu beharreko gaitasunak eta helburuak identifikatzea. Horratik, hasieratik informatu behar da irakaskuntza-jarduerak erritmo pertsonalizatuan betetzeko eta ebaluatzeko plana.

## 2. Testuingurua

Irakasle ororen zeregina da xedeak, gaitasunak eta ikaskuntzaren emaitzak berrikustea eta horien alderaketa egitea. Ikasleei agindutako lanak gaitasunen eta ebaluazioaren arabera egokiak diren oharu beharra dago, bestela, ikasturtean egindako jarduera horiek ez baitute deusik balio. Alegia, ariketek xede bat (edo batzuk) eduki behar dute, ikasleei zerbaiterako balio behar die (etorkizuneko profesioaren jardueran, adibidez) eta gainera, modu koherente batean ebaluatu behar dira. Irakasleok askotan, gure inguruan ditugun mugen arabera jarduten dugu inertziaz, muga horiek gainditu ditzakegun zalantzan ipini gabe. Eta, egia da, bidean izan daitezkeen oztopo asko ezin dira gainditu, baina sormena erabiliz eragozpenak garaitu daitezke, are gehiago teknologia digitalen aroan. Lerro hauetara dakartzagun esperientzia, ondorio eta hausnarketak Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Kazetaritza graduan irakasten den ‘Multimedia eta Transmedia Narratibak’ irakasgaiari (aurreko planean ‘Multimedia Edizio eta Produksioa’ deitua) dagozkion arren, beste irakasgai eta graduatarako baliogarriak izan daitezke.

Aipatutako irakasgaietan, ikaslea prestatzen da, besteak beste, kazetaritza-ekoizpen multimedia bat planifikatu eta gauzatzeko, transmedia narrazio-teknikak erabiliz. Inguru digitalean gaudelarik, *software*<sup>1</sup> bereziak menperatu behar dituzte halabeharrez. Tamalez, ez dago eginkizun bakoitzerako *software* bakar bat baizik, horrek dakartzan oztopoekin. Gauzak horrela, eragozpen horiek gainditzeko, ikasketa alderantzikatu metodoa erabiltzea aproposa zela uste genuen. Ikasketa-metodologia hura erabili aurretik, 2018an ikerketa txiki bat burutu genuen. Lan horretan, ikasleek ikasteko beren

<sup>1</sup> Sistema eragilea zein erabiltzaileok erabiltzen ditugun aplikazioak dira *softwareak*.

kabuz bideoak ikusteko duten ohitura ezagutu genuen. Parte hartu zuten ikasleen %89k adierazi zuten bideoak ikusten zituztela ezaguera handitzeko (Goikoetxea Pérez, A., 2018: 33). %11k onartu zuten ez zuela inoiz bideoarik ikusi ezaguera handitzeko. Gainera, noizbait bideoak erabili izan dituzten artean, den-denek jo zuten positibotzat esperientzia hori.

Galdera irekien bitartez, datu esanguratsu gehiago lortu genituen: Ikasleek atal praktikoetarako erabiltzen dituzte batez ere bideoak. *Software* jakin batzuetan trebatzeko bideoak ikusten dituzte gehienetan (%70): egunkariak zein aldizkariak maketatzeko programak, bideo eta argazkien ediziorako programak edota office-en programak erabiltzen ikasteko sarritan bideoetara jotzen dutela aitortu dute gehienek. Badaude hainbat ikasle ikasgai sakontzen dutenik, atal praktikoaren inguruko bideoak ikusten. Hala, interes gehien duten gaietan ezaguera handiagoa edukitzeko erabiltzen dute askotan bideoak. Bitxikeria moduan, hainbatek aitortu dute janaria prestatzeko unean ere bideotutorialak ikusten dituztela. Youtube da guztien artean plataformarik nagusiena (%98,8); bakar batzuek, besterik ez dute aipatu, zuzenean espezializatutako webguneetara jotzen dutela (%1,2). Hala ere, nabarmendu beharra dago, normalean, horrelako edukiak igotzen dituzten youtuberrek, kate espezializatuak dituztela Googlen plataforma ospetsuan.

### 3. *Flipped classroom* ikasketa-metodologiaren erabilera

Ikasketa alderantzikatua metodologiaren funtsa Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Kazetaritza graduan erakusten den ‘Multimedia eta Transmedia Narratibak’ (aurreko planean ‘Multimedia Edizio eta Produkzioa’ deitua) irakasgai erabili dugu 2018tik aurrera bigarren eta hirugarren mailako Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) kazetaritzako ikasleen artean. Irakasgaiaren xedea multimedia eta transmedia produkzio baten edukiak web-plataforma batean prestatu eta editatzeko behar den ezagutza eskuratzea da. Multimedia-baliabide anitzetaz ari garenez, ikasleek tresna ezberdinen erabilera menperatu behar dute etorkizunean arituko diren profesioan aurkituko dituzten erronkei aurre egiteko. Eta, honek lehenengo zalantza planteatu zigun irakasle moduan: zer *software* erabili eskolako jarduerak egiteko?

Alde batetik, Unibertsitateak berak programa jakin batzuk ditu ikasleek erabili ditzaten; kasu batzuetan programa profesionalak dira, baina, beste batzuetan ez. Zehazki, taldeak egokituta zeukan multimedia gelako ordenagailuek Photoshop eta Illustrator bezalako programa profesionalak dituzte (Adobe etxeak biak) argazkiak editatzeko eta irudi bektorialekin lan egiteko, hurrenez hurren; bideoak editatzeko, ostera, Apple markako iMovie aplikazio natiboa da dagoen bakarra; eta, audioaren kasuan, Audacity aplikazio askea. Azkeneko bi programa horiek, apenas ez dira erabiltzen maila profesionalean; hortaz, ez dirudi zentzu handia daukanik aplikazio horiekin ikasturte osoan zehar buru-belarri aritzea ondoren ikasleek ez baldin badituzte horiek erabiliko unibertsitateetik kanpo. Xedea baldin bada ikasleari profesioak dituen erronkei aurre egiteko gaitasunak eskaintzea, lan-merkatuan aurkituko dituzten erremintekin lan egin beharko genuke eskolan bertan. Baina, jakina, lizentzia guzti horien jabetzak gastu nabarmena suposatuko luke instituzio publikoarentzat, oraingoz beregain hartzeko prest ez dagoen gaitasuna.

Era berean, ez dugu uste unibertsitate publiko batek etxe pribatuaren alde nabarmenki egin behar duenik, kasu honetan, aplikazioen ekoizleen alde, bestela, esku pribatu bakar batzuren mesedetara jotzeko gaitasuna. Horren ordez, *software* libre<sup>2</sup> erabiltzea litzateke alternatiba, baina, arazo

<sup>2</sup> GNU Operating System-en arabera, *software* libre da erabiltzaileen askatasuna eta komunitatea errespetatzen dituen. Hau da, erabiltzaileek askatasuna dute *software* exekutatu, kopiatu, banatu, aztertu, aldatu eta hobetzeko. Egin-ginean ere, askatasunari dagokio, ez prezioari (Soberanes Martín, A. eta Martínez Reyes, M: 2021: 110 or.).

berdinaren aurrean aurkituko ginateke berriro; izan ere, programa askeek asko hobetu duten arren, beren erabilera lan-merkatuan oraindik ere oso apala da.

Egia da ere, enpresa asko datozen langileen beharretara egokitzen direla; alegia, langile belaunaldi berriak erreminta jakin batzuk erabiltzen baditu, horietara moldatzen direla. Gu orain ari garen esparruan, langile berrien gehiengoak *software* libre erabiltzen badu, komunikazio enpresek lizentziapeko programak erabiltzeari utziko liokete, *software* libre erabiltzearen alde. Multinazionalak hori jakin badakite eta, horregatik Adobe edota Microsoft gisako enpresa handiek eskaintza bereziak egiten dizkiete bai ikasleei zein irakasleei, etorkizunean ikasle horiek lan egingo duten enpresetan eragiteko helburuarekin. Baina, behetik gorako aldaketa hura ez da gauza makala, ezta gutxiagorik ere, eta horrelako aldaketek instituzio publikoen aldetik apustu argia ematea eskatzen dute; ez da irakasle soil batek bere lan-esparru txikitik egin dezakeen gauza bat.

Badaude hainbat autore *software* libre erabiltzearen alde egin dutenek, horren onurak azpimarratuz. Adell eta Bernabék (2007) esaterako, *software* librearen balioen eta hezkuntza publikoaren helburuen arteko erlazioari buruz gogoeta egitera bultzatzen dute. Gure asmoa baldin bada ikasleek XXI. mendeko informazioaren gizarte konplexu eta kontraesankor horretan behar bezala integratzeko behar diren ezagutzak eta gaitasunak garatzea, herritar askeak, parte-hartzaileak eta solidarioak izateko, profesional gaituak izateko, nekez lortuko da gure eskola, institutu eta unibertsitateetan *software* pribatiboa soilik ezagutzen badute. Palazio aditua da oso hezkuntza esparruan *software* librearen erabileran, eta beste gauza batzuen artean, MOOCen bidezko ikaskuntza librea dihardu eta, inplikazioak asko izan daitezkeela aipatzen du, jakintzaaren transmisioa era disruptibo baten bidez eraman dezaketelako ikastaro horien bidez (2014). Cobok (2009) *software* askea irakaskuntzan erabiltzearen garrantziaz ere dihardu, hezkuntzaren, sormenaren eta *software* librearen arteko trilogiak egungo eskolen prestakuntza-ingurunera ekar ditzakeen aukeren berri emateaz gain, orain arte abian jarri ez diren aldaketa horiek guztiak agerian uzten laguntzen duela azaltzen du.

Hortaz, bere isatsari koska egiten dion arrain gisa, lan-merkatuan erabiltzen diren tresnak erabiltzeko edo hori saihesteko biraka genbiltzan, eta *software* libreko aplikazioekin lan egiten genuen, lan-merkatuan eragiten saiatuz. Eta, horretan geundela, SARS-CoV-2 birusak bete-betean jo zuen eskolako funtzionamendua: bigarren lauhilekoko irakasgaia izanik, 2019-2020ko ikasturte ia osoa etxetik egin zen, eta, ondorengo bi ikasturteetan unibertsitateko ordenagailuak erabili beharrean, ikasleek euren ordenagailuak besterik ez zuten erabili behar, horrek suposatzen duen lizentzia arazoekin.

Zalantzei eta eragozpenei aurre egiteko, 2018tik buruan genuen ideia abian ipintzeko une aproposa zela erabaki genuen: *flipped classroom* ikasketa metodologia erabiltzea eskolako atal teknikoan lantzeko. Horrela, irakasleak atal teoriko-praktikoak azaldu ostean ikasleak zein aplikazioekin lan egitea erabakitzeko aukera izan du. Hori baino lehen, irakasleak dauden aplikazio nagusi bakoitza (lizentziadunak zein askeak) erabiltzearen alde onak eta txarrak jakitera ematen die, ikasleek bata zein bestearen alde egiteko irizpideak eduki ditzaten. Bada, azaltzen zaie zein programa erabiltzen diren lan-merkatuan baina, adierazi ere, ordainpekoak direla. Bestalde, *Software* librearen onurak azaltzen zaie, nahiz eta enpresetan horiek oso gutxitan erabiltzen diren ohartarazi.

Gauzak horrela, hauek dira irakasgaian landu ditugun erremintak: argazkilaritzaren esparruan, Adobe Photoshop (lizentziapekoa) eta Gimp (askea); irudi bektorialak lantzeko, Adobe Illustrator (lizentziapekoa) eta Inkscape (askea); audiogintzan, Adobe Audition (lizentziapekoa) eta Audacity (askea); bideogintzan, aldiz, hainbat aplikazio erabili ditugu: Adobe Premiere eta Final Cut (biak lizentziapekoak), Davinci Resolve (lizentziapekoa baita, baina, doako bertsioa ere eskaintzen du),

eta Open Shot (*software* libre). Irakasleak askatasun osoa du edozein aplikazio erabiltzeko eta, eskola jarraitzeko egin behar duen bakarra da aukeratutako programari buruzko irakasleak eGelara (Moodle) igotako bideoak ikusi alde aurretik. Behin lanean hasten direla, zalantzak izanez gero, irakasleak argitzen ditu.

Aplikazio bakoitzak bere berezitasunak izan arren, denek ala denek badituzte amankomuneko elementuak eta horiek azaldu zaizkie. Hortik aurrera irakasleak bi eginkizun gauzatu ditu. Lehenik eta behin, sarean dugun infoxikazioa dela-eta, irakaslea *conter curator* gisa aritu da alde aurretik, ikasgaiaren inguruko bideo egokiak aukeratuz eta ikasleei eskainiz, euren kabuz ikusi dezaten. Aplikazio bakoitzaren erabileran lagungarri izan daitezkeen bideoen estekak eGela plataformara igo dira, irakasleak aukeratu duen *softwarea* delarik ere, etxean lanean hasteko aukera du. Horrela, irasleek ez dute denbora galduko bideo egokiak bilatzen, baizik eta zuzenean ikasketa prozesuan sartu dira. Bideoetan ikasitakoa klaseko ikastorduetara ekartzea da helburua, ikasketa prozesuko lehenengo fasea gaindituta, fase konplexuagoetara igarotzeko: eztabaidak sustatu, ikasle bakoitzaren beharrezanean erantzun, etab. Eta bigarrenik, irakaslea orientatzaile gisa ibili da klase orduetan; irakasleak lanean hasi daitezke zuzenean alde aurretik ikusitako edukien gainean eta irakasleak bideratu ditu. Gainera, ikasketa prozesu honi esker noranzko bakarreko komunikazioa hautsi egiten da.

Lehenengo saio presentzial batean, ohi bezala, ikasleei jakinarazi zaizkie helburuak, irakasgaiek eskainiko dieten gaitasunak eta ikasketa-emaitzak. Bertan, ikasleei animatu zaie prestatutako multimedia-materiala berrikus dezaten. Hortik aurrera, irasleek lantaldeak sortu eta lanean ekiten dute.

Jarduerak taldeka egiten dituztenez, aurrez aurreko saioetan irakaslea taldez talde joaten da sortu daitezkeen zalantzak argitzeko asmoz. Berehala, irasleek gaiaren erabilera praktikoko egoera esperimentalei ekiten diote, konplexutasun-maila aldatuz. Batzuetan, irasleek berrikusitako kontzeptuak aplikatzen dituzten ariketen bidez ebaluatu behar dira. Horretarako, taldean ideiak trukatea proposatzen da eta, eztabaida horretatik ateratako ondorioak taldeari aurkeztea. Saioa amaitzeko, irakasleak zalantza edo kezka berriak arakutzen ditu.

#### **4. Ondorioak**

*Flipped Classroom* metodologiak eskaintzen duen estrategia didaktikoa berritzailea eta oso interesgarria da bere erabilera. Gaur egungo joera pedagogikoak integratzen ditu, eta gainera, didaktika partikularren erabilera sustatzen du.

Irailitako gelaren ikasketa-metodoak elementu nagusizat hartzen du iraslearengan garatu behar diren xede-gaitasunak identifikatzea. Eskola-orduak ez direnez erabiltzen ikasleei klaseen bidez ezagutza transmititzeko, irakasleak irasleekin elkarreaginean jardun dezake beste ikaskuntza-jarduera batzuen bidez hala nola, jardueren eta orientazioaren bidez, irasleek proposatutako problemak ebaztearen bidez, edo eztabaiden sustapenaren bidez. Planteatutako helburuetara iristeko, iraslearengan zentratutako metodologia aktiboa erabili behar da; horretarako, lan aktiboak eta lankidetzakoak antolatu behar dira, irakasleak gidari gisa jardungo duen goi-mailako jarduera mentalak ikasgelan zabaltzeko.

Ikasketa-metodologia honek eskolak zituen hainbat muga gainditzea ahalbidetu digu. Alde batetik, covidak eragindako oztopoak modu egoki eta eraginkorrean gainditzea eskaini digu, irakasgaian planteatzen diren xedeak lortuz. Bestetik, irasleei aukera eman zaie unibertsitatea lizentzien jabe ez

den hainbat erreminta profesionalak erabiltzea jarduerak egiteko unean, unibertsitateak berak duen muga gaindituz. Gainera, lizentzia askeko aplikazioak erabili edo ordainpeko aplikazio profesionalak erabiltzearen ezbaian, ikasleei eman zaie bata zein bestearen alde egitearen aukera, alde aurretik bakoitzaren alde onak eta txarrak azaldu ostean. Hala, gaitasun-maila desberdineko ikasleak integratzen dituen metodo batez ari gara, eta, horri esker, beren erritmoan aurrera egin dezakete ikasgelatik kanpo, edukia behar adina aldiz errepikatuz eta irakaslearen nahiz bere bikotekideen laguntza egokiarekin aurrez aurre praktikatuz, arreta gehienbat indibidualizatua eskainiz, bai eta parte-hartzeak berrelikatzeko eta aberasteko espazioa ere. Horrek taldearen aurrerapena ahalbidetzen du erritmo pertsonalizatueta eta, ikasle bakoitzaren aurrerapenarekin bat datozen ebaluazioak egitera.

Are gehiago, *flipped classroom* metodologiak ahalbidetu die irakasgaiak dituen ikasketa-emaitezatik harago sakondu nahi duten ikasleei aurrera egitea. Beti dago ikasleen artean material jakin-mina handiagoa dutenak, interesa baitaude irakasgaietan. Gure kasuan, multimedia arloan interesa duten ikasleak izan dira urtero, baina, ohiko ikasketa metodologiaren baitan eskola-orduetan denek erritmo berdinean aurrera egin behar zutenek, interesa berezia zuten ikasleen potentziala ez da orain arte ustiatu. Ikasketa metodologiaren aldatuari esker, aipatutako ikasleek emaitza gogobetegarriagoak lortu dituzte.

Oro har, ikasketa-prozesuaren zati bat eskolatik kanpo lagaz, ikasleek bestelako galdera batzuk planteatu dituzte eskola-orduetan, konplexuagoak eta, ikasleentzat askoz aberasgarriagoak. Aurreko urteetan lortutako emaitzekin alderatuta, *flipped classroom* metodologiak emaitza hobekien lortzea ahalbidetu du. Lortutako emaitza onak ikusita, hurrengo erronka da metodologia hau irakasgaiaren alde teknikoagoan erabiltzeaz gain, bestelako esparruetan ere erabiltzea. Hala, atal praktikoko jarduerak jakin batzuetan ikasketa alderantzikatua ezarri beharrez, jarduerak guztietan erabiltzea da xedea. Era berean, atal teorikoa ere metodologia honen baitan egitea egokiena litzateke.

## Erreferentzia bibliografikoak

ADELL, J. ETA BERNABÉ, Y. (2007). *Software libre en educación. Tecnología educativa*. McGraw-Hill.

AKÇAYIR, G. ETA AKÇAYIR, M. (2018). The flipped classroom: A review of its advantages and challenges. *Computers & Education*, 126, 334-345.

BISHOP, J. ETA VERLEGER, M. A. (2013). The flipped classroom: A survey of the research. In *Annual Conference & Expositio 2013*. ASEE.

COBO, J. C. (2009). Conocimiento, creatividad y *software* libre: una oportunidad para la educación en la sociedad actual. *UOC Papers, Revista Sobre la Sociedad del Conocimiento*. Universitat Oberta de Catalunya. Bertan eskuragarri: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3041337.pdf>

GOIKOETXEA PÉREZ, A. (2018). Unibertsitateko ikasleen ohiturak ikasketa alderantzikatua (*flipped learning*) metodologia barneratzeko. In: Ronco López, M. eta Goikoetxea Pérez, A., *Ikasnarbar 2018*, 31-36. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

PALAZIO, G. J. (2014). MOOCen bidezko ikaskuntza librea: ezaugarriak eta osagaiak. In *Ikasnarbar 2014: Open Education And Technology*, 227-241. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Bertan



eskuragarri: <https://addi.ehu.es/handle/10810/15531>

SOBERANES MARTÍN, A. ETA MARTÍNEZ REYES, M. (2021). Propuesta de adopción de *software* libre en carreras universitarias de cómputo en la Universidad Autónoma del Estado de México. *Software libre educativo en una cultura digital*, 110-130. Qartuppi. Bertan eskuragarri: [https://www.researchgate.net/profile/Qartuppi-S-De-Rl-De-Cv/publication/349043582\\_Software\\_libre\\_educativo\\_en\\_una\\_cultura\\_digital/links/6076834a92851cb4a9dc25cd/Software-libre-educativo-en-una-cultura-digital.pdf](https://www.researchgate.net/profile/Qartuppi-S-De-Rl-De-Cv/publication/349043582_Software_libre_educativo_en_una_cultura_digital/links/6076834a92851cb4a9dc25cd/Software-libre-educativo-en-una-cultura-digital.pdf)

SOHRABI, B. ETA IRAJ, H. (2016). Implementing *flipped classroom* using digital media: A comparison of two demographically different groups perceptions. *Computers in Human Behavior*, 60 zenb., 514-524.

OLVERA, WALTRAUD; GÁMEZ, ISMAEL ETA MARTÍNEZ-CASTILLO, JAIME. (2014). Aula Invertida o Modelo Invertido de Aprendizaje: origen, sustento e implicaciones. *Los Modelos Tecno-Educativos, revolucionando el aprendizaje del siglo XXI*, 143-160. Lulu Digital.

VIDAL LEDO, M.; RIVERA MICHELENA, N.; NOLLA CAO, N.; MORALES SUÁREZ, I. R. ETA VIALART VIDAL, M. N. (2016). Aula invertida, nueva estrategia didáctica. *Educación Médica Superior*, 30. bol., 3. Zenb., 678-288. Escuela Nacional de Salud Pública (ENSAP). Bertan eskuragarri: [http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci\\_arttext&pid=S0864-21412016000300020#:~:text=El%20%22Flipped%20Classroom%22%20%2D%20%22,no%20tiene%20una%20definici%C3%B3n%20uniforme](http://scielo.sld.cu/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0864-21412016000300020#:~:text=El%20%22Flipped%20Classroom%22%20%2D%20%22,no%20tiene%20una%20definici%C3%B3n%20uniforme).



## **Conocimiento de la actualidad informativa a partir de la participación del alumnado que ejerce de periodista y lector crítico**

*Knowledge of current information based on the participation  
of students who act as journalists and critical readers*

**María del Mar Rodríguez González**

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
mariadelmar.rodriguez@ehu.eus*

**Iñigo Marauri Castillo**

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
inigo.marauri@ehu.eus*

**Guillermo Gurrutxaga Rekongo**

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea  
guillermo.gurrutxaga@ehu.es*

### **Resumen**

La integración de la educación superior en el Espacio Europeo obliga a replantearse cuestiones que pasan por la reformulación de las estrategias de enseñanza-aprendizaje, así como de modificaciones en el sistema de evaluación. Este es el marco en el que se presenta la propuesta formativa bajo el título de ‘Control y Exposición grupal de la actualidad’. Una iniciativa basada en el aprendizaje cooperativo que contribuye a que el alumnado adquiera una de las competencias básicas en las materias de redacción periodística de primer curso de las titulaciones de comunicación de las diferentes facultades de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Las tradicionales pruebas de actualidad basadas en preguntas-respuestas resultan ineficaces al mostrar cada curso un desinterés mayor por la actualidad. Por eso se propone el trabajo de un tema de actualidad en grupo en el que se

potencia la intervención de la clase convertida en una redacción.

**Palabras clave**

Actualidad, aprendizaje, metodología, grupos, exposición, control

**Abstract**

*The integration of higher education in the European Space forces us to rethink issues that go through the reformulation of teaching-learning strategies, as well as changes in the evaluation system. This is the framework in which the training proposal is presented under the title of 'Group control and exhibition of today'. An initiative based on cooperative learning that helps students acquire one of the basic skills in journalistic writing subjects in the first year of communication degrees from the different faculties of Social Sciences and Communication. Traditional current affairs tests based on question-answers are ineffective as each course shows a greater lack of interest in current affairs. That is why the work of a current topic in a group is proposed in which the intervention of the class converted into a writing is promoted..*

**Keywords**

*News, learning, methodology, groups, exposure, control*

## 1. Introducción

La materia prima de todo periodista es la actualidad y eso lo saben muy bien quienes ejercen la profesión y los docentes que imparten el grado de Periodismo, de Publicidad y Relaciones Públicas y de Comunicación audiovisual en las diferentes universidades. En la Universidad del País Vasco/EHU, en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación, se trabaja la actualidad en diferentes asignaturas a lo largo del grado de Periodismo, como son Géneros Informativos, Reporterismo, Redacción y Creación de Contenidos web, entre otras. Una labor cada día más difícil de llevar a cabo por el abismo que se registra entre las rutinas profesionales de los periodistas, obligados a trabajar cada día con numerosos datos, fuentes e informaciones en el que la actualidad y su conocimiento es determinante, y el concepto de actualidad que tienen gran parte de los estudiantes del grado y de los hábitos que siguen para seguir la actualidad informativa.

En este sentido, Mar de Fontcuberta explica que la actualidad es el factor que convierte un hecho en digno de ser noticia y, por tanto, es el eje de la actividad periodística. (De Fontcuberta, 1993, pág. 25). Por su parte, Benito Jaén subraya que comunicar los acontecimientos más recientes alude directamente a la esencia misma de la labor periodística, definida así por el experto: “Es la selección de aquellos acontecimientos que, en razón de su interés humano y actual, ganan la atención pública en un momento dado” (Benito Jaén, 1995, pág. 11).

Sin embargo, los jóvenes y, por supuesto, los jóvenes estudiantes que quieren ejercer el Periodismo, encuentran en Internet y las redes sociales un escenario lleno de posibilidades y de servicios en el que se dan dos condiciones esenciales para la vida diaria de este grupo de edad; se trata de un entorno interactivo y alberga ingentes cantidades de información disponibles desde cualquier lugar y en cualquier momento. En definitiva, el contexto digital despierta enormes expectativas a la hora de comunicarse con los demás, de establecer relaciones personales y de acceder a la información que le puede interesar a este público en cada momento. Así, las redes sociales son para los jóvenes una importante fuente de información, de manera que estas plataformas se han erigido en un canal de acceso inmediato a la información de actualidad por encima de otros, con diferente grado de influencia y, mientras que hace unos años Facebook y Tuenti lideraban los soportes de consumo de información, por encima de Twitter, ahora Instagram y TIK TOK ganan terreno<sup>1</sup>.

No cabe duda que la producción de contenidos, las rutinas de trabajo, los soportes y los modelos de negocio actuales experimentan una transformación constante que también afecta a los patrones de consumo de información del público. Una realidad que deben tener presente los futuros comunicadores, sin perder de vista que para informar es fundamental entender que esta materia prima sobre la que se trabaja en los medios de comunicación no está compuesta por sucesos inconexos entre sí, sino que todos ellos se enmarcan en complejos procesos que producen muchas unidades similares a lo largo del año. Y esta necesaria contextualización, unida a la obligación de informar de forma veraz y eficiente -indispensable para el correcto ejercicio de la función social de los periodistas y comunicadores- requiere de profesionales que hayan desarrollado el hábito de estar debidamente informados.

El obligado conocimiento de los antecedentes, las causas y las posibles consecuencias de los acontecimientos o, lo que es lo mismo, la capacidad de contextualizar los sucesos, se convierte en un requisito indispensable en la cotidiana labor de intermediación entre la realidad y los lectores. Quien quiera informar sobre política internacional o economía debe conocer la materia sobre la que trabaja

---

1 Yuste, Bárbara, (2020) “Las nuevas formas de consumir información de los jóvenes”. Documentos.

igual que el médico especialista conoce la suya. Y más en un entorno como el actual, en el que el exceso de información es cada vez más evidente y en el que es más importante que nunca afianzar la determinación y criterio con el que se aborda esta tarea<sup>2</sup>.

Entre los diversos estudios<sup>3</sup> publicados y centrados en las razones por las que los jóvenes leen cada vez menos informaciones no solo a través de los medios de comunicación convencionales, como pueden ser los diarios en papel, sino de los nativos digitales, por ejemplo, se pueden obtener diferentes explicaciones.

Por un lado, la llegada de las tecnologías digitales y, sobre todo, de Internet ha contribuido a que los jóvenes se trasladen al entorno online en busca de una nueva forma de comunicarse y de entretenerse, pero también de consumir contenido informativo. Por otro, la falta de interés por los contenidos que ofrecen los medios, a lo que se podría añadir la presentación poco atractiva para ellos de estos contenidos. Una investigación llevada a cabo por Parrat<sup>4</sup> revelaba que la principal causa del desinterés era la convicción de que los contenidos de los periódicos estaban excesivamente politizados y carecían de objetividad. El estudio chileno antes mencionado, publicado 12 años después de este, asegura que cuando a los jóvenes se les preguntaba cómo accedieron a la última noticia que leyeron o que recordaron el 25% dijo haberlo hecho a través de una persona famosa que seguía en redes sociales (Youtubers o influencer), aunque el 60% lo hizo en medios tradicionales como televisión, radio o diarios; un 58% por familiares y amigos cercanos en redes sociales; y un 55% directamente por redes sociales.

El diario *El País* se hacía eco el pasado 19 de junio de la tendencia detectada entre los más jóvenes por el Instituto Reuters y la Universidad de Oxford: el 39% de los que tienen entre 18 y 24 utilizan las redes sociales como su principal fuente de noticias. Instagram, TikTok y YouTube son sus canales. La razón es que les resulta difícil entender el lenguaje que usan los medios tradicionales y su forma de contar las historias. “También les da “bajón” leer sobre política o coronavirus”<sup>5</sup>.

Entre las conclusiones del informe Digital News Report 2022<sup>6</sup>, realizado a partir de más de 93.000 entrevistas a consumidores de 46 países, destaca que los cambios en el consumo entre los 18 y los 34 años marcan una nueva forma de interactuar con las plataformas y no parece probable que vaya a revertirse cuando estos jóvenes alcancen los 40 años. Kirsten Eddy, coautora del informe, explica, tal y como recoge el diario *elpais.com* que les engancha el estilo informal, más personalizado y diverso, además de los vídeos en directo. Otra de las preferencias que hace tambalear las bases de los

---

<sup>2</sup> Peña, S. Lazkano, I, Agirre, (A 2014): “El periodismo y la necesidad de estar bien informado. Una propuesta informativa”. *Historia y Comunicación Social*. Vol. 19, N° Esp. Febrero (20214) 387-400.

<sup>3</sup> Casero-Ripollés, A. (2012) “Más allá de los diarios: el consumo de noticias de los jóvenes en la era digital”. *Comunicar*, nº 39, v. XX. *Revista Científica de Educomunicación*: ISSN: 1134-3478: páginas 151-158.; Arriagada, A.; Browne, M.; González, R.; Salvatierra, V.; Santana, L.; Velasco, P. (2022). *Flujos de curatoria informativa en adolescentes*. Santiago, Chile: Escuela de Comunicaciones y Periodismo, Universidad Adolfo Ibáñez.

<sup>4</sup> Parrat, S. “Por qué los jóvenes no leen periódicos? Análisis y propuestas”, comunicación presentada al III Congreso Internacional Comunicación 3.0 celebrado en la Universidad de Salamanca el 4 y 5 de octubre de 2010. [<http://campus.usal.es/~comunicacion3punto0/comunicaciones/080.pdf>].

<sup>5</sup> <https://elpais.com/sociedad/2022-06-19/la-generacion-sin-noticias-para-mi-es-desfasado-meterme-en-un-periodico.html>

<sup>6</sup> [https://drive.google.com/file/d/1EJq9mMY22\\_ICFHT8dDakxO5mgrodWw/view](https://drive.google.com/file/d/1EJq9mMY22_ICFHT8dDakxO5mgrodWw/view)

medios tradicionales es que a los jóvenes les parece oportuno que los periodistas puedan expresar sus opiniones de forma abierta en las redes sociales. “Otro reto para las normas clásicas del periodismo”, señala el documento.

Este es el contexto en el que el docente universitario que imparte alguno de los grados relacionados con la comunicación en la UPV/EHU, como es Periodismo, Publicidad y Relaciones Públicas y Comunicación Audiovisual, se encuentra con el reto de motivar y trasladar la importancia y necesidad de formar a profesionales informados.

## **2. Competencias/resultados de aprendizaje**

En la Universidad del País Vasco la asignatura de Géneros Informativos, obligatoria para los tres grados antes señalados, recoge las siguientes competencias:

- Dominar los conceptos teóricos de los géneros informativos.
- Capacidad para la selección de temas, la búsqueda de fuentes y el tratamiento noticioso.
- Capacidad de estructurar los textos periodísticos en función de las posibilidades informativas y creativas de cada género.
- Capacidad de aprehender y aplicar las técnicas de redacción propias y específicas de los géneros informativos.
- Capacidad de desarrollar las principales tareas periodísticas con corrección ortográfica y gramatical .
- Adquisición de un conocimiento actual de la realidad informativa.

El conocimiento de la actualidad, por tanto, es una competencia determinante en el futuro comunicador, aunque los resultados obtenidos hasta ahora en este punto lejos de ser positivos, son cada vez menos esperanzadores.

El sistema tradicional para evaluar el conocimiento que sobre la actualidad tiene el alumnado son los tradicionales test o pruebas de actualidad, en el que el alumno responde a cuestiones de actualidad relacionadas con la Política, la Cultura, la Economía, la sección Nacional, Internacional, la Local y los Deportes.

A lo largo del curso 2021-2022 se realizaron entre los 87 alumnos del grupo 16 en la asignatura de primero de Géneros Informativos un total de nueve pruebas de actualidad de 20 preguntas cada una, es decir 180 preguntas. De ellas era necesario tener la mitad bien para aprobar, 90. Solamente dos alumnos lo consiguieron, uno con 101 y otro con 91. Diez de ellos obtuvieron entre 75 y 84 respuestas y el 54% entre 30 y 50 respuestas correctas. Durante el curso 2020-21 siguiendo el mismo sistema se realizaron test de actualidad entre los alumnos de Primero del Grado de Periodismo, Publicidad y Relaciones Públicas y Comunicación Audiovisual, también en el grupo 16 en la asignatura de Géneros Informativos, con un índice de aprobados del 35% (de 98 alumnos) en primera convocatoria. El resultado durante el curso 2019-2020 fue del 37% (de 92 alumnos) y el del 2018-2019 del 43% (de 88 alumnos). Estos resultados son una pequeña muestra de que al alumnado cada vez le interesa menos la actualidad, al mismo tiempo que se cuestiona el método de evaluación, habida cuenta del límite temporal para trabajar la actualidad en las clases magistrales y en las prácticas.

Por todo ello se propone una nueva fórmula centrada en que se trabaje en grupo la actualidad por secciones, tal y como detallamos a continuación.

### **3. Metodología**

Se ha optado por la propuesta de una metodología grupal que desarrolle un aprendizaje interactivo y cooperativo. Las dinámicas en grupo se apoyan en agrupamientos flexibles, privilegian el aprendizaje experiencial y reflexivo, crean conocimiento, desarrollan la participación activa, buscan y apoyan en la autonomía del grupo. Se parte de que una situación cooperativa es la más adecuada para lograr el fin de que el alumnado se interese por la actualidad. “Una situación cooperativa es aquella en la que las metas de los individuos por separado están relacionadas entre sí, de tal forma que existe una correlación positiva entre las consecuciones de sus objetivos; un alumno alcanza su objetivo si y sólo si los otros participantes alcanzan el suyo” (Deustch, 1949).

### **4. Cómo transformar la actualidad en un hábito atractivo y necesario para la formación de comunicadores**

Se propone trabajar la actualidad en grupos de no más de cinco personas con el fin de exponer el tema delante de la clase. En el momento de la exposición la mitad de la clase se convierte en una redacción, mientras que la otra se transforma en un público lector crítico. El grupo encargado de presentar la actualidad ante la clase recibe el nombre de Grupo de Exposición, mientras que hay otro grupo elaborado por el docente que recibe el nombre de Grupo de Control. Estos alumnos serán los responsables de comprobar si Grupo de Exposición ha trabajado bien la actualidad porque ellos también lo harán a la vez. Para ello, este grupo trabajará el tema que ellos elijan y que cuente con la aprobación del profesor o profesora, de acuerdo a las secciones antes mencionadas, simulando así un diario. Esto significa que la Guerra de Ucrania se puede tratar desde un punto de vista Internacional, pero también económico si los alumnos lo enfocan en las consecuencias que para la economía española ha tenido esta guerra. El resultado es que no solo el alumnado se sabe de memoria quiénes son los presidentes de los países en guerra, como sucede con los test de actualidad, sino que entienden el problema que ha desencadenado el conflicto, los antecedentes, las consecuencias, etc.

1941.urtean Orson Wells-ek zuzendutako *Citizen Kane* filmaren lehenengo planoan ikusten den lehenengo irudian, horixe irakurri daiteke: No trespassing. Kartel hori dagoeneko bur-din hesia gainetik pasatzen du kamarak mugimendu batekin. Zuzendariak Hollywoodeko industriaren baitan ordura arte ez-ohiko kontratu bat lortu zuen film hau egiteko. Bere es-kuetan izango zuen sortze-prozesu osoaren eta bukaerako emaitzaren kontrol guztia. Aska-tasun osoko testuinguru horretan, bere hautua izan zen ordura arte zineman zirauten arau eta muga guztiak gainetik pasatuko zituen sorkuntza bat gauzatzea.

À bout de souffle [Jean-Luc Godard, 1960] zinema modernoaren hasiera datatu zuen peli-kula da. Bere zuzendariak pelikula lehenengoz produktoreei erakutsi zienean, hauek oso luzea zela eta laburtzeko eskatu zioten. Zuzendariaren erabakia pelikulako bloke edo se-kuentzia osoak kendu beharrean, plano, elkarrizketa eta begiraden arteko denbora tarte hutsak mehetzea izan zen. Horren ondorio izan ziren ordura arte ikusi gabeko plano mozketak eta begiraden joko bitxiak, garai hartara arte inoiz agertu gabeko estilo axolagabe eta batez ere askea. Muga batetik abiatuta arauak apurtu zituen. Eredu berriak sortu.

Adibide bi hauek kontraesankorrak diruditen arren oinarrian ideia berberaren aurpegi bi dira. Arauek edo mugek sormenezko testuinguru batean eragiten dutela mugimendua. Mu-gimendu hori, nahiaren mugimendua da. “(Libertad de movimientos) Suelo decir que no sé lo que es la libertad, pero como en muchas otras cosas el argumento más sólido que tengo no es más que una alegoría: la de las cuerdas de la marioneta: cuantas más, más libertad” (Sánchez Ferlosio, 2012).

Artikulu hau mugak eta arauak sorkuntzarako bide edo tresna bezala planteatzen dituen praktika baten azalpena da. Ideiaren oinarrian, kezka bikoitz bat gordetzen da. Batetik, ikuspuntu sortzaile batetik eratutako arautegiek zein abantaila eta desabantaila izan dezake-ten unibertsitate hezkuntzaren testuinguruan; bestalde, aztertzen da sormena eta ezagutza-ren transferentziaren

artean egon daitekeen harremana. Neurri batean, ikuspegi honek aurre egiten dio espresio askearen ideari eta inspirazioa sormenaren motor bakar edo nagusia dela eztabaidan jartzen du. Honekin ez dugu esan nahi lege zurrunez osatutako edozein hezkuntza praktikaren defentsa egiten denik, hau da; planteatzen diren arategi posibleak, edo eragozpenetan oinarrituriko hezkuntza praktikak, gertuko artekoak dira, eskala txikikoak. Nolabait esatearren, pertsonen arteko konplizitate, empatia eta komunikazioan oinarritzen dira, beraz, sormenera gidatutako arategiez ari garenean, maitasunak edo bes-tearenganako inklinazioak gidatutako arategien baliozkotasunaz ari gara. Eremua zehaztuta, muga batzuk ipinita, sormena handitu egin daiteke baldin eta erregela horiek pertsonak erabiliak izateko aukera ematen badute.

Muntaia klaseetatik abiatuta, metodologia honek aurkikuntzaz ikastea du helburu, ba-koitzak momentuan behar duena ikastea. Aurkikuntzako ikaspenak hipotesien egiaztapena du aurkipenaren zentro logiko moduan, eta arazo ebazpenerako jarduera auto-erregulatzailea da. Oinarri nagusia litzateke subjektuari aitortzea gaitasun natural bat eza-gutza lortzeko eta berau pedagogikoki eragin daitekeela, hau da, ez da zoriz eta istripuz gertatzen. Egitura egokiak sortuz sustatu daiteke, kasu honetan planteatzen den ariketaren beraren egiturak (egitean oinarritua, jomuga konkretu eta homogeneorik gabea, singularra denari adi...) gertaera hori bilatzen du. Laburbilduz, sormenezko portaera izaera sozialekoa izaki, hezi daiteke (Barrón Ruiz, 1993).

Modu honetan, ariketa ezberdinen bitartez ikasleak deskubrituko ditu ikus-entzunezko lengoaiaren funtsezko erreminta eta kontzeptu batzuk, jakin behar direnak eta Imazek ar-tearen irakaskuntzari buruz dioten moduan:

“... ulertzen dut oinarrizko eta funtsezko gai batzuek iraun egiten dutela denboran zehar eta edozein hasiberrik bereganatu behar lituzkeela horiek (oro har, sentikortasun materialeko kontuak dira, anto-lakuntzakoak eta irudikapenekoak). Baina, paradoxikoki, gai horiek oinarrizkoak eta funtsezkoak dira soilik norbaitek haiekin topo egiten badu eta berak asmatuikoak balira bezala erabiltzen baditu ...” (Imaz, 2016:5).

Idea honi loturik, bilatzen dena da ikasleak garatzea irudi eta soinu bidezko hizkuntza hau, modu intimo edo singularrean. Autore eta artista ezberdinek dioskute (Ranciere, 2011, Bresson, 1975) zinemak ez duela berariazko lengoia sortu edo garatu, alegia, guztiok ezagutzen dugun ohiko zinemaren hizkuntza antzerkiaren eta literaturaren morron-tzatik ez dela askatu. Honek agerian uzten du zein zabala den ikerketa eremu hori, eta beraz ez dakizkigun bideetatik bertara hurbilduz aukera handiak ematen dituela aurkikuntzarako.

### 1.1. Mugak sormenerako tresna moduan. Adibideak.

Araua jokabidearen ardatz edo gidaritzat hartzen edo ezartzen den zera bezala definitu ohi da; zerbait nola egin behar den adierazten duen argibidea. Planteatzen den ariketan ordea, arauak muga baten itxura izan beharko luke. Zerbaiten edo norbaiten garapenerako oztopo den gabezia. Mugaren itxura du, baina eraren batean gaindituko dela argi adierazten den muga bat. Edo hobeto esanda, muga alde batera utzita ikasleak jarraitu ahal izango duela bere espresio bidea. Eragozpen bat baino ez. Ikuspuntu sortzaile batetik eratutako arauak erabiltzeko modukoak izan behar dira, alegia, ikasleak askatasun osoa izango du berauek nola erabili erabakitzeko. Ariketaren testuinguruan, eragozpen hauek norbaiten lasaitasuna edo ongizatea galaraztea dute helburu. Nahia mugitzea. Askatasuna, eragozpenik eza bezala definitzen du hiztegiak. Horrela ahal da?

60ko hamarkadan Raymond Queneau idazlearen inguruan Oulipo izeneko literatur taldea sortu zen (gaur egun ere martxan dirauena).

“¿Cuál es el objetivo de nuestros trabajos? Proponer a los escritores nuevas «estructuras» de naturaleza matemática, o incluso inventar nuevos procedimientos artificiales o mecánicos para contribuir a la actividad literaria: apoyos a la inspiración, por así decirlo, o incluso, en cierto modo, una ayuda a la creatividad” (Quineau; Macho, 2016:129)

Muinean dagoen ideia da murrizketa edo eragozpenez osatutako tresna literarioak sortzea, idazle ezberdinek nahi duten bezala erabiltzeko. Adibide ezagun eta oso simple bat da S+7, translazio lexikoko operazio bat. Hiztegi baten laguntzarekin testu batetako substantibo (S) guztiak ordezkatzeko dira hiztegi horretan aukeratutako izen horretatik kontaktzen hasita ager-tzen den zazpigarren (+7) substantiboarengatik. Ariketa aberasteko, formula matematiko hau eraldatzea eta batez ere translazio tresna (hiztegi) bitxi eta bereziak probatzea gomenda-tzen zen (Fernandez, 2009:27).

Jonas Mekas zinemagileak bere eguneroko bizitzako planoak filmatu zituen urteetan zehar benetan egin nahi zituen pelikulak egiteko denborarik ez zuelako. Urteen buruan konturatu zen bere obra horixe zela (Bergala, 2007). Tom Waits musikariak Swordfishtrombones lana argitaratu zuen 1983an eta bere ibilbidean haustura bat suposatu zuen, hizkuntza berri baten agerpena. Lan hori burutzeko Waits-ek jotzen ez zekizkien instrumentuak erabiltzea erabaki zuen.

Robert Bresson zinemagilearen *Notas sobre el cinematógrafo* (1975) arauen multzo edo dekalogo partikular modura ulertu daiteke. Testu horretan jarraibide batzuk eman zituen zinemaren lengoia berri bat sortzeko, edo hobeto esanda, zinemarena berariazkoa litzate-keen hizkuntza garatzeko literatura eta antzeziaren morrontzatik askatuz. Bresson-en plan-teamendutik oso gertu legoke *Dogma95* zine mugimendua.

## 1.2. *Dogma95*: Auto-ezarritako arauak eta mugak sorkuntzarako estrategia moduan ikus-entzunezkoetan

Hezkuntza, askatasuna, arauak edo eta sormenaren kontzeptuen arteko lotura eta harreman-nen gaiaz hausnartzeko, Lars von Trier zinemagilearen figura modelo bezala erabili de-zakegu. Bere biografian eta artista jardueran paradoxa asko aurki ditzakegu askatasuna eta arauen arteko auziaren inguruan pentsarazten digutenak. “La libertad con la que había vivido pasó a ser una de mis mayores limitaciones. La disciplina estaba mal vista” (Trier; Rodriguez, 2003: 24).

Trier-ek 1995ean *Dogma95* zine mugimendua ezagutzera eman zuen, mugen eta sormena-ren arteko bateratze horretan pentsamendu kontraesankor bezain esanguratsuak sor ditzakeena. *Dogma95* manifestua arautegi bat zen, nolabait “benetako” pelikula bat egiteko jarraibideak ematen zituena. Pelikula batek *Dogma* zigilua izan zezan, pelikula egiterako orduan zuzendari batek muga artistiko batzuk onartu behar zituen, adibidez kamera beti eskuan erabiltzea edo narrazioan denbora edo espazio saltorik ez egotea. Zuzendari dani-markarraren hitzetan “erregela multzo bat zen zinea bere lokarrietatik askatzeko” (Trier; Rodriguez, 2003: 26). Lokarri horiek batez ere, zine komertzialak inposatutako estetika filmikoari dagozkionak dira, eta modu laburrean esanda Hollywoodeko produkzioek eza-rritako estandarri. Bere aburuz, manifestua onartuta, sorkuntza prozesuan askatasun gra-dua handitzen zen. Ideia hau argia da batez ere prozedurarekin, egiteko erarekin zerikusia duten puntuei kasu egiten badiegu. Kamara eskuan erabiltzeak, argiztapen artifizialaz ez baliatzeak edo efektu berezien bazterketak zuzenean garamatza lan-talde txikiago batekin errodatzera eta ondorioz tramankulu eta artificio gutxiagoren zama izanik, errazagoa da inprobisatzea eta momentuko errealitateak aurkezten digunarekin esperimintatzea. *Dogma*-k bilatzen zuena zen zinemara itzultzea gizakien mugak (Rodriguez, 2003). Akatsen eta inperfekzioen onarpenaren bidetik, eta prozeduran bertan arreta jartzean, hau da; egiteko moduak duen garrantzia azpimarratuz -eta kasu honetan

(kamera eskuan, zuzeneko soinua) erreala den horretara hurbilduz eta performatiboago bihurtuz-sorkuntza edo artelan batean bitxikeriaren balioa azpimarratzen delako; singularra denarena.

Planteatzen den praktikarako beste ideia interesgarri bat atera dezakegu Trier-ek Dogma manifestuaren inguruan egindako adierazpen honen harira; “Lo importante no es seguir las reglas al pie de la letra sino plantearse ciertas limitaciones para a partir de ellas ganar en creatividad. Ante todo *Dogma95* es una investigación, y es preciso descubrir para qué sirve” (Trier; Rodríguez, 2003:27). Esaldi honetatik eratortzen dena da, *Dogma95*, arautegi hori, ez dela jomuga bat, eta gehiago dela baliabide bat. Xedea ez dela dekalogo errespetatzea edo traba horiek gainditzea, baizik eta tresna bat izatea sorkuntzarako; berau onartuz zinegileek beraien burua esperimentera bultzatzen zuten, hau da, lehenago ibili gabeko bide bat aukeratzea toki berri batetara iristeko. Hauxe litzateke ere artikulua honetan planteatutako ariketak bilatzen duen dinamika; praktikaren egiturak akuilatzea ikasleak, beraien nahiak mugitzeko eta hortik ezjakintasunarekin harremana lantzeko.

### 1.3. Jakintzaren inguruan non kokatzen garen. Ba ahal dakigu?

Irakaskuntza/ikaskuntza bideratzeko hainbat eredu eta eskola izan dira historian zehar, eta bilakaera bat, eredu tradizionaletik hasi eta gaur egun indarra hartzen ari diren eredu konstruktibista eta sozio-konstruktibistetaraino. Prozesu aktibo eta indibidual moduan ulertzen du konstruktibismoak ikaskuntza, ikaslea baita bere ikaskuntzaren protagonista, ikasgaiak bere bizitza-esperientziarekin lotuz. Alde horretatik, ikastea barne-prozesu bat da, kanpotik baino ikasle bakoitzaren barnetik zuzendu beharrekoa. Konstruktibismoaren arabera, hor-taz, norbanakoa ez da ingurunearen emaitza hutsa, ezta bere barneko prestakaren ondorio soil bat ere, baizik eta bi osagai horien arteko erlazioen emaitza, egunero moldatzen den eraikuntza propio bat. Ezagutza ez da errealitatearen kopia bat, baizik eta gizakiaren konstruktio bat. Ezagutza bakoitzak auto-eraikitzen du subjektuaren jarrera aktiboa azpimarratzen delarik (Barba, Cuenca eta Gómez, 2007). Beraz egungo paradigmatik eskema horizontal batekin azalduko luke irakaskuntza/jakintza eta irakaslea/ikaslea problematika. Posizio horretan jarriko lituzte subjektua eta objektua ere, eta ikaslea jakintzara bideraturik legoke; berak eskuratuko du modu aktibo eta argian. Baina nahiz eta jakiteak (edo edukiak) transferitzea nolabaiteko bigarren planoan gelditzen den, moduren batean transmisioaren ideiak dirau. Ikasleei irakatsi behar zaie nola ikasi. Ideia hori helarazi behar zaie. Baina ba al dakigu benetan nork irakasten duen? Eta nork ikasten duen? Elisabeth Ellsworth-ek bere “Posiciones en la enseñanza” lanean dioen arabera, psikoanalisia ekarpen handiak egin diezazkioke hezkuntza praktikari.

Hasteko, eta Shoshana Felman-en ideiei jarraituz, Ellsworth-ek azaltzen du psikoanalisia orain arte adierazi ez den moduan ulertzeko aukera ematen duela irakastearen ezinezkotara. Norbaitek beste pertsona bati zerbait konkretua modu kontrolatu, demokratiko eta orekatuan transmititzea, ezinezkoa da. Baina baieztapen hau ez da heziketaren bukaera bat, jardun pedagogikorako ate berriak zabaltzea baizik, zabaltzen den bidea da irakaskuntzari ekitea inkontzientearen existentzia eta beronen garrantzia guztiz onartuz.

“Enseñar es imposible porque el inconsciente constantemente desbarata las mejores intenciones pedagógicas. Y dirigirse a ellos como si esto no estuviera ocurriendo -como si la comprensión mutua y completa fuese efectivamente alcanzable cuando no lo es- establece una situación imposible entre los profesores y los estudiantes” (Ellsworth, 2005:66).

Inkontzienteak ezinezko egiten du edozein gauza bukatutzat ematea, jakintza bat erakutsi izana adibidez, eta irakasten dena ez da inoiz ikasten dena, egitura hau ezinezkoa da. Ellsworth-en



hitzetan orain arteko pedagogia okzidentalek bultzatzen dute irakaspena eman deneko bukaera itxi hori bilatzea, baina “afortunadamente el inconsciente no deja que eso ocurra.(...) La persona completamente consciente cuya consciencia es transparente para sí misma ha sido “abolida” por el inconsciente” (Ellsworth, 2005:67)

Inkontzientea existitzen dela onartzeak esan nahi du onartzen dugula ez-jakintasunerako grinaren sustraiak gehienetan ez ditugula ezagutzen, edo hobeto esanda; ezkutuan daudela. Eta ezkutuan egongo dira ere begi-bistan ikasteko gogoia adierazten digun ikasle horrentzat ere. Psikoanalisiak dioskuna da ez-jakintasuna pasio bat dela, eta ez-jakiteak ez daukala pasibotasunarekin zerikusirik; ez-jakin nahi izatea akzio bat dela, pertsona guztiak horreta-ra inklinatuak gaudela. Honek ez du esan nahi ere ez-jakintasuna eta jakintza toki desber-dinetan gauzatzen direnik, edo batak bestearen espazioa hartzen duenik. Biak indar berbe-rarekin sortzen ditugu; xehetasun infinituaz uztarturik daude, batak bestea zeharkatzen du etengabe, inkontzientek kontzientzia bezala. Eta zein da gure inkontzientek gordetzen digun informazioa? Momenturen batean erreprimitu genituen nahien berri eman nahi digu. Noizbait izan ditugu zilegi ez zirela uste genituen desioak (sumatzen genituelako ez-onargarriak besteen aurrean edo irakatsi zigutelako horrela ulertzen), bilatu behar izan dugu ezin-egona sortarazten digun hori kodifikatzen zilegigoak bezala onartzen ditugun ideia, pentsamendu edo hitzekin. “La represión significa que se ha cambiado algún deseo indes-tructible de nuestro deseo por algo simbólicamente irreconocible” (Ellsworth, 2005:67). Kodifikatze hori, pertsona batek izan dezakeen hizkuntza intimo, pertsonal edo singularrena litzateke. Bakoitzak berea du, baino guztiok dugu ahaztua. Ez-jakintasuna po-sizio aktibo bat denez, guztiok nahi izan ditugu desio ez zilegi kontsideratzen genituenak ahaztu, geure barnean izen/hitz onargarrietara itzuli eta ezjakintasunerako irrika horretan, ahaztu nahi izan dugu ere kodeketa horren hizkuntza.

Ikasleak bezala, irakasleak ere bere inkontziente dauka. Berdin funtzionatzen du. Beraz ezjakintasuna bikoitza da. Batetik ez du bere inkontzientea ezagutzen, ondorioz ez daki zein modutan ez duen bere diskurtsoa kontrolatzen, hau da; benetan zer ari den adierazten. Eta bestalde ez du ikaslearen inkontzientea ezagutzen, hau da, ikasleak ikasteko dituen erresis-tentziak ez ditu ezagutzen. Orduan, zertan ezberdintzen dira biak, bata (irakaslea) ez izanik ikasleak jakin behar duena dakien hori? Irakasle/ikasle arteko egitura pedagogikoan, hor ematen den direkziozkotasun estrukturan toki ezberdinak dituztela. Kontutan izan beha-rreko ideia orduan da, irakasten duena ez dela pertsona bat, irakasten duena direkziozkota-sun egitura hori dela, harreman hori da irakasten duena. Irakasle/ikasleen artean, nola dio-gun dioguna eta nola entzuten dugun entzuten duguna.

Irakasleak (analistak analizantearekiko<sup>1</sup> bezala) ikasle/irakasle arteko diskurtsoan abantailazko posizio ezberdin bat dauka. Analistak irakurri egiten duenez analizanteak dioena tes-tu baten moduan, interpretatuz honek egiten dizkion galderak, planteatzen dituen eran-tzunak, argi azaltzen duena edo egiten dituen isiluneak (eta non egiten dituen), posizio ezberdinak dituzte ematen ari den diskurtsoarekiko direkziozkotasun estrukturan. Psikoana-lisiak dioskuna da hor ematen den informazio-fluxuaren izaerak duela irakasteko po-tentzialtasuna, subjektuaren nahia modu esanguratsuan mugitzekoa (aldaketa emateko, ikasteko). Nolabait esatearren, analistak mugimendu baten posibilitatea itzultzen dio anali-zanteari. Diferentzia bat dagoela adierazten dio (ez modu zuzenean); diferentzia bat dagoela bere errelatoaren eta benetan esaten ari daitekeen horren artean. Analistak analizantearen testua irakurtzen du, eta hitz egiten dio bueltan, testu horretan interpretazioak

<sup>1</sup> Psikoanalisian, terapeuta/bezero binomioa analista/analizante bezala izendatzen da. *Analizante* erabiltzen da, aitortzen zaiolako pazienteari paper aktibo bat elkarriketa terapeutekioan zehar. Inkontzientea irukirri daiteke eta aldi berean irakurlea da.

huts egiten duen espazioetatik; testuaren erresistentzietatik (adibidez ez-jakintasuna lokalizatzen den puntuetatik). Horregatik dituzte posizio ezberdinak, horregatik da berea abantailazko posi-zio bat. Analizanteari bere diskurtsoaren zaurietatik zuzentzen zaio eta esaten dio hortik edozer, dionak ez dauka esanahirik, egiten duena da ageriago uztea diskurtsoaren egitura, nolabait esatearren, mahai gainean jartzen du pieza batzuk daudela, (adierazleak eta be-rauen arteko elkarrekintza posibleak). Analistak ez ditu beraz bezeroaren galderak erantzun nahi, bere zauriak osatu eta diskurtso kongruente bat itzuli. Adierazitako diferentziaren bitartez bilatzen duena da bezeroak berak galdera aldatzea, izaera performatiboa du beraz erantzun honek. Oihartzun bat ematea bilatzen du pazientearengan, bere pentsaera edo egi-tura sinbolikoan aldaketa bat.

“Puede cambiar no solo lo que el paciente conoce, puede cambiar cómo el paciente lo conoce. Puede cambiar lo que hace con lo que conoce, cómo experimenta lo que conoce, cómo el retorno de un conocimiento reprimido se utilizará para construir un futuro (diferente)” (Ellsworth, 2005:77).

Izan ere, gauza ez da zauri hori (itxuraz) konpontzea, zauri hori errealar<sup>2</sup> -en ezagutzarako atea izanik, behar den bezala lantzea baizik. Bertatik lan egingo du. Badakiela ahaztu duen horren adierazleen inguruan osatutako egitura hutsak (esaldi hutsak) itzultzen dizkio, gero subjektuak hortik ulertuko du, birdeskubrituko ditu bere lengoaia ahaztu horren piezak, gero erabiliko dituenak, esanahiz betetzeko. Ideia hau Bergalak hezkuntzari buruz dioen honekin lotu dezakegu:

“En este campo, como en todos, las verdaderas mutaciones tienen lugar cuando antes algo, en lo simbólico, ha basculado: la realidad siempre acaba por seguirlo, aunque arrastre un poco, o incluso mucho, los pies. Es ahí, en el orden de lo simbólico, donde están los auténticos candados y las auténticas resistencias” (Bergala, 2007:30).

#### 1.4. Zergatik berregin perfektua dena? *The Five Obstructions* arte hezkuntzarako inspirazio iturri bezala azalduta

*The Five Obstructions* (Lars von Trier eta Jorgen Leth, 2003) dokumentala entsegu audio-bisual moduan kontsideratu daiteke, ikerketa bat elkarrizketa filmiko baten formarekin. Batetik bi zuzendarien arteko solasaldiak ditugu, eta bestetik Leth-en obra originalak, egiten dituen *remake*-ak eta guztia biltzen dueneko pelikuaren artean ematen den dialektika ariketa. Pelikulan ikusten dena da nola Trier-ek (biak aurrez-aurre bere bulegoan bilduta daudela) erronka bat proposatzen dion Leth-i; azken honek 1967an sortutako *The Perfect Human* film laburraren bost bertzio berri burutzea bakoitzarentzako Trier-ek jarriko diz-kion eragozpenak kontutan izanda. Lehenengo bertzioaren kasuan adibidez planoen irau-pena mugatzen dio, film originalak planteatutako galderak erantzutea exijitzen dio eta gala-razten dio dekoraturik erabiltzea. Pelikulan ikusten da nola azken traba hau bat-batean ezartzen dion Trier-ek, konturaturik Leth-en intentzioa kontrakoa zela, hau da, dekoratu bat sortzea filmatzeko (lan originalean bezala). Beste adibide bat; laugarren bertzioa anima-zioaren teknika erabiliz egiteko eskatzen dio, jakinik Leth-ek (eta baita Trier-ek berak ere) ez duela bat ere gogoko hizkuntza hori.

Esanguratsua da hirugarren eragozpenaren kasua, askatasuna, sorkuntza eta mugen arteko auzi honetan Trier-en ikuspegi berezia azalduz. Leporatzen dio Leth-i bigarren filmean tranpa egin izana eta zigor moduan ezartzen dio hirugarren remakerako kondizio bakar bat: askatasun osoa izango du Leth-ek.

<sup>2</sup> Psikoanalisiaren esanetan, “erreala” dena da, izendatu ezin den hori. Lengoiatik kanpo dagoena, ezin da irudikatu edo sinbolizatu eta nahiz eta beti “hor” bere tokian dagoen, irudimenezkoa eta sinbolikoaren bitartez atzeman dezakegu. Zerbait noizbait benetan jaio dena; esperientzia garbia gorputzean “nola” markatzen den.

## 2.IRUDIA. *The Five Obstructions* pelikulako kartela



Iturria: [www.imdb.com](http://www.imdb.com)

### 1.4.1. Zer dauka gizaki perfektuak?

“Nada hay más molesto en arte que comprobar que las intenciones del artista han sido plenamente consumadas, que nos encontramos ante meras materializaciones de ideas o de voluntades”. (Badiola, 2006:1)

*The Perfect Human* 13 minutuko filma da, zuri-beltzean errodaturia. Gizon eta emakume perfektua aurkezten dizkigu, modelo hutsen moduan, espazio zuri eta ordenatu batean; espazio zuri eta mugagabe batean. Leth-ek bere ahotsarekin narratzen digu ikusten ari ga-rena. Gizaki perfektuen, ekintza perfektuen deskribapen perfektu eta neurtua da. Dena da-go bere tokian. Zergatik sentitzen du orduan Lars von Trier-ek lan hau berregiteko beharra?

Lars-ek ezin duena soportatu perfektutasun hori eta Leth-en gogobetetasuna dira. Nolabait demonstratu nahi du, itxurazkoak direla. Zapuztu nahi du bere diskurtsoa; zauritu eta posi-zio horretatik (akatsetatik, ezintasunetatik) sortutako elkarrizketaren bitartez benetako Jor-gen Leth ezagutu, edo agerrarazi. Leth-en laburmetrai originaleko momentu batean aurkez-ten zaigu simulazio ironiko moduan nola erortzen den gizaki perfektua. Lars-ek Jorgen den gizon perfektua erortzen ikusi nahi du benetan. Gizon perfektua erortzen ikusi nahi du, Jorgen Leth ezinean. *The Five Obstructions* pelikula osoa horren bilaketa bat da, lortuko ez duena, are gehiago (eta aurrerago planteatuko dugun ariketarekin

loturik), pelikulak erakus-ten diguna da traba horrek gainditzeko bidean Leth-ek indartu egiten duela bere nortasuna (Rodriguez, 2003:272). Muga horiek oztopoak izan beharrean erremintak izan dira bere garapenerako.

### 1.5. Nola ekarri pelikularen planteamendua klaseko praktika batera?

Hasteko esperimentazio ariketa bat da, ez dago jomuga edo ataza zehatzik, nahiz eta nora-bide bat bai dagoen; hau da, praktika hasten da irakasleak emandako bideo eta soinu artxibo ezberdinak baliatuz minutu bateko muntai bat egiten dutenean ikasleek. Bakoitzak berea bukatu ahala, lanak ikusi ikaslearekin eta bere narrazioa berregitea proposatzen zaio, momentuan ezarritako arau edo eragozpen batzuetan oinarrituz. Bertsio bi eginez gero ariketa bukatutzat eman daiteke, baina ez nahi eta nahi ez. Ariketaren gakoa berregitean legoke, dagoen narrazioa hautsi edo kolokan jarri eta apurketa horretatik abiatuta ikasleek beraien ikus-entzunezko lengoaia (propioa) ezagutzea eta garatzea. Planteamendua bidera-turik dago aurkeztutako materiala manipulatu eta berau lantzeko tresna jakin batzuk erabili behar izatera. Hau da, beharko dute audioa eta bideoa editatu; audio/bideo loturak hautsi eta testuinguru ezberdinean erabili. Baina batez ere beharko dituzte ekintza eta frogen on-dorioz erabakiak hartu soinua eta irudiaren inguruan eta modu horretan hauteman beraien-tzako bi elementuon artean dagoen harremana (eta aurkezten dizkien aukerak adierazle moduan).

Badaude ikus-entzunezko lengoaiaren elementu batzuk, teknikaren arlokoak direnak. Konbentzio bat dira. Beste batzuk lehengaiak dira; irudi eta soinuaren manipulazio ia fisi-koak. Hauek ezagutu behar dira, baina bakoitzak aurkitu behar du hauek nola ezagutu, bere teknika propioaren barruan izango duten tokia eta noiz uste duen beharko dituela (eta zein modutan). Helburua bada norberak bere ikus-entzunezko lengoaia propioaren hastapenak ezagutu edo garatzea, Bergalak dioen moduan, hori argitzea egiten bakarrik lortuko duela ikasleak. “Conocer es asimilar lo real a estructuras de transformaciones, siendo estas estru-turas elaboradas por la inteligencia en tanto que prolongacion directa de la acción” (Pia-ge; Barba,Cuenca eta Gómez, 2007)

Ikasleei material bat aurkezten zaie denentzako berdina eta ikasgelako sare informatikotik beraien ordenagailuetara nola inportatu adierazten zaie. Material hori guk geure lanetan (telebistan; dokumentalgintzan) erabili izan dugun ohiko materiala da. Esan daiteke telebis-tarako albiste edo erreportaje bat sortzeko erabili daitekeen materiala dela, teorian eta oi-narrizko informazio generoen definizioei kasu egiten badiegu, eduki objektibo eta inper-so-nal bat sortzeko pentsatua, edo beste era batera esanda; beste inoren iritzia adierazteko pentsatua. Materiala oso heterogeneoa da, lotura gutxi dago iturri ezberdinen artean. Artista eta gai ezberdinen inguruan erreportajeak egiteko erabilitako materiala da, hau da: testuin-guru ezberdinetatik hautatutako irudi eta soinuak, libreki konbinatzeko aukera emateko pentsatuak. Egin beharrekoa da material horrekin minutu bateko ikus-entzunezko narrazio bat sortzea; mikroautobiografia bat. Bideo horrek diskurtso pertsonal bat behar du izan, zerbait kontatu behar dute ikasleek beraiei buruz, edo iritzi pertsonal bat eman. Zerbait intimoa bada, hobeto. Gomendatzen zaie, kontatu nahi duten hori zerbait oraineko ia izatea. Momentu horretan adierazi nahi duten zerbait, dela mezu sakon, konplexu edo azalekoa. Hau da; “Ez dakit nire bizitzarekin zer egin·-etik hasita, 2Gaur bero naiz”-eraino.

F. Mihael Connelly eta D.Jean Clandinin autoreek *Déjame que te Cuento* (1995) lanean azaltzen dituzte istorioak eta narrazioek hezkuntzaren testuinguruan izan ditzaketan ba-lioak, testu ezberdinen, narrazioen eta subjektuen ikasketa prozesuen arteko harremana ikertuz.

“Entendemos a nosotros mismos y a nuestros alumnos desde un punto de vista educativo, necesita-mos entender

a las personas con una narrativa de las experiencias de vida. Las narrativas de vida son el contexto en el que se da sentido a las situaciones escolares” (Connelly eta Clandinin, 1995:16).

Autore hauen iritziz, guk ez ditugu bizitzak ezagutzen edo irakurtzen, guk bizitzako testuak irakurtzen ditugu. Ondorioz, testuetatik jaso dezakegu jakintza, bizitzetatik ezin baitaiteke ikasi (Heilbrun, 1988). Txikitatik kontaketez inguraturik gaude. Haurrek edo ikasleek, es-kolara begiratzen dutenean, ikasgaietan istorioak aurkitzeko espektatibarekin da. Irakaslea-ren partetik ere hori espero dute eta autoreek klaseko praktika edo edukien egituraketa na-rratiboa proposatzen dute, testu literario bezala funtzionatzea, lortu beharreko helburuen edo konpetentzien multzo bat baino gehiago. Testu literarioen moduan orduan, bere biziko garrantzia du kontatzeko aukeratzen dugun ahotsak, nork eta nondik kontatuko duen kla-searen istorioa. Hau da, zein posizio hartzen duen klaseko partaide bakoitzak hor ematen den direkziozkotasuzeko egituran eta nun kokatzen garen jakintzaren inguruan.

Ariketaren planteamendura bueltatuz, ikasleek adierazi nahi duten hori paper batean idatzi behar dute, esaldi bat edo bitan. Honen bitartez bilatzen dena da azpimarratzea diskurtso pertsonal eta konkretu bat sortu behar duten ideia hori eta bestalde, idatzizko adierazpen horiek nolabaiteko lehengai edo oinarri bat dira irakaslearentzako, ariketaren bigarren par-tean, trabak eta eragozpenak jartzeko orduan. Bideoa berregiteko mugak eta kondizioak jartzerakoan, esaldiok, ikaslearen inkontzientea kontutan hartzeko edo lantzeko beste iturri bat dira; elkarrizketa sortzeko. Zentzu honetan, irakaskuntzan erabili behar den lehengai buruz hitz eginda, Imazek honela dio: ‘Horregatik, ikasleak dakarren edozer gauza izan behar da beti abiapuntua, kaka zaharra iruditzen bazaigu ere, edo agian horretxegatik. Eta horrek balio du, batez ere, hasiera-hasierako irakaskuntza-harremanetarako.’ (Imaz, 2016:5)

Eskatzen zaie ere paper horretan apuntatzeko jardueran zehar ikasten duten edozein gauza, edizio programaren tresna berri bat non dagoen edo audioak mozteko modu konkreturen bat edo beste edozein ikaspen edo kezka, beraien aburuz handia edo txikia. Edozein aurki-kuntza txiki, adibidez, ikasleak berak harrapatzea plano orokor baten irakurketa zein mo-dutan ematen den edo zein erabilera izan dezakeen diskurtso jakin bat eraikitzerakoan, askoz esanguratsuagoa izango da beste norbaitek nola erabili behar den erakustearekin alderatuz. Berdina esan genezake adibidez *Adobe Premiere* (edo beste edozein) edizio ez-linealeko software baten erabilera ikasterakoan. Eskaintzen dituen tresnak asko dira, eta bide eta ibilbide ugari sorkuntza lana nolabait antolatzeke, baina lehenago edo beranduago gertatu behar den gauza bat da, bakoitzak berea aurkitzea. Lehenago bada, hobeto.

Prozedura litzateke lehenengo narrazioa bukatuta duten horiengana hurbiltzen jutea eta ikustea bideoa. Ikusi behar da ere bideoari lotutako esaldi edo adierazpena. Bi elementu horietan oinarrituta proposatuko zaie lanaren berregitea bi edo hiru arau konkretu jarraituz, mikroautobiografia eta ikaslearen arabera. Hau kontuarekin egin behar da. Hasteko, egin-dako lanaren inguruan iruzkin txiki bat egin behar zaie alde positiboak komentatuz; ondo dagoena, badakitena egiten. Gero argi utzi behar zaie emandako aginduak ez direla beraien proposamena hobetzeko, baizik eta zerbait ezberdina agertzeko.

Planteamendua Shoshana Felman eta Elisabeth Ellsworth-ek hezkuntzarekiko egiten duten psikoanalisiaren interpretazioa praktikan jartzea da. Proposatutako eragozpen edo kondizio horien bidezko irakasle/ikasle elkarrizketak (ariketaren egiturak), analogia egiten du analis-ta/analizante harreman horrekiko. Hau da, jarritako muga horiek esaldi hutsak bezala funtzionatzea, eta bere zeregina litzateke hutsuneak zabaltzea ikaslearen (edo bere lanaren) diskurtsoan. Zauritzea, kontu handiz eta maitasunez. Ikasleak gustura egiten duten horretatik (badakiela ezagutzen duen horretatik), leku deserosoago batera bere nahia eramatea, eta berak martxan jartzea hortik, bere ikasketa prozesua.

“...arte-irakaslea naizen aldetik, ezer esan gabe hitz egiten ikasi behar dut, hitz ho-riek performatiboak izatea

lortzeko, hau da, jendea martxan jartzea lortzeko, atzera egiteko aukerarik gabe; eta, aldi berean, norabide bat zehazteko, tradizio artistikoa-ren norabidea, hain zuzen, legea desiragarria izan dadin.” (Imaz, 2016:7)

Modu azalekoago batean, jarritako kondizio eta mugek aukera ematen dute ikus-entzunezko lengoaiaren errekurtsio eta elementu konkretu horien inguruan hausnartzeko eta berauen ulermenean sakontzeko. Erreparasatzen dugu praktikaren garapena, hasierako esaldi eta bideotik hasita jarritako eragozpen eta traben inguruan hausnartuz, zer kentzen dien eta batez ere ematen dien. Hau da, loturak bilatuko ditugu jarritako kondizioen eta lanaren emaitzaren artean, eta azpimarratuko ditugu gorago aipatutako ikaspen txiki edo handi ho-riek.

## 1.6. Eztabaida eta ondorioak; mugalari lanaren mugak

Alain Bergalak bere *La Hipótesis del Cine* (2007) liburuan “mugalari” hitza darabil irakaslea-ren figura deskribatzerakoan. ‘El pasador es alguien que da algo de sí mismo, que acompaña en la barca o por la montaña a aquel a quien debe hacer pasar, que corre los mismos riesgos que aquellos de quienes está provisionalmente al cargo’ (Bergala, 2007: 46). Plan-teatutako praktikan ikasleek beraiek aurkikuntzaz ikastea bilatzen denez, irakasle bezala ezin duzu ziur jakin klasea norantz joango den, edo gertaeren sekuentzia. Ikasleekin batera arriskatzen zara adibidez aukeratutako materiala ez izatera nahikoa iradokitzailea edo lane-rako pizgarria. Edo baita ere lehenengo lanaren ondoren eragozpen edo traba bidezko for-mula egoki bat planteatzeko gai ez izatera. Azken finean arriskatzen zara blokeo egoera bat (ez emankorra) bizitzera. Baina apustua hori da, klaseko egitura horrek eta materiala bera lantzearen esperientziak (eta berau ebaluatzeko gaitasunak) dioskUNETIK emango dela ikas-kuntza.

“La pedagogía del cine se caracteriza, a grandes rasgos, por la manera en que se aproxima a su objeto. Ante este objeto complejo, vivaz e indócil es mucho más importante tener una actitud justa que afe-rrarse a un saber tranquilizador. Siempre vale más un profesor que sabe poco pero que se acerca al cine de manera abierta, sin traicionar su naturaleza real, que un profesor que se apega a unas cuantas miga-jas de saber rígidas y empieza dando definiciones de los movimientos de cámara y las escalas de plano,(...)” (Bergala, 2007:125).

Hau onartuz, aurkeztutako planteamendu honen muga nagusia irakasleon buruotan leku-tu dezakegu. Ariketaren planteamendua horren zabala izanik, eta praktikan jartzen den momentuan bertan sortutako hori interpretatzeko gaitasunak duen pisuagatik, modu bertuko jardueren bitartez lortutako prestakuntza ezinbesteko gertatzen da. Begira zer dioskun Ellsworth-ek irakasleagoaren prestakuntzaren inguruan:

“Estos estudiantes en formación del profesorado están cultivando un sentido de cómo lo no resuelto en la enseñanza y el aprendizaje es el recurso más valioso del que se puede hacer uso, trabajar con él y ponerlo en movimiento para múltiples propósitos -pero nunca con una absoluta certeza de resultado-” (Ellsworth, 2005:78).

Eta bere aburuz, etorkizuneko irakasle hauek trebatzen ari dira ikasleak dakiena barik, dakien horrek ezkututzen diona hautematen; bere ezjakintasuna, ahantzurak edo ikaskun-tzarako dituen erresistentziak zein modutan forma ematen dioten erreala den horri.. Azken finean egituraz ari zaigu.

Artikulu honen izenburuak dioten bezala, ikuspuntu artistikoa garatzeak edo arteak dakiena aplikatzen saiatzeak, zein onura ekarri lezake ikaslearentzat?

Batetik, ikus-entzunezkoa lengoaia bat denez ikasle bakoitzak hauteman behar du zein mo-dutan integratuko dituen berau osatzen duten adierazleak bere diskurtso propiora. Modu honetan, ariketa ezberdinen bitartez ikasleak deskubrituko ditu ikus-entzunezko lengoaia-ren funtsezko erreminta eta

kontzeptu batzuk, jakin behar direnak baina eskuratuko du lehen eskuko jakintza bat ere; garatuko du bere ikuspegia, eta tokia egingo zaio bakoitzaren bitxitasunari. Bilatuko da ikasleak aukera izatea gaiarekiko lotura intimoa bilatzeko ikus-entzunezko lengoaiaren legeak onartu behar izan aurretik. Berau zerbait itxia eta perfektua bezala aurkeztu beharrean, bere zauriak, bere gaineko interpretazioak non huts egiten duen agerian jartzerakoan, erakargarriago bihurtzen da. Zauri edo diferentzia horiek heldulekuak dira bertara hurbildu nahi duenarentzako, edozeineko ikuspuntu pertsonalerako atearak. Gai bat (zinearen hizkuntza, adibidez) trasmisibleago egiterantz, larregi sinplifikatu edo eske-matizatzeak gaiaren beraren benetako izaerarekiko kontaktua galtzea ekar lezake, pragma-tismoaren bidetik.

“En pedagogía más que en ningún otro ámbito, hay que desconfiar permanentemente del criterio de «lo que funciona», que nunca es una validación suficiente; pues la globalización funciona, el comercio funciona, los medios de comunicación funcionan, la división del trabajo funciona, la demagogia funciona, ¿pero es verdaderamente esto lo que queremos transmitir y reproducir?” (Bergala, 2007:31).

Bestalde Unibertsitateko curriculum ofizialak adierazten du zenbait zeharkako konpetentzia garatu behar dituela ikasleak gaitasun zientifiko-teknikoetatik aparte, horien artean, auto-nomia eta autoerregulaziorako ahalmena garatzea.

“Prozesu horietan, pertsona hainbat gauzaz jabetzen da: zer dakien eta zer ez, nola ikasten duen, nola kudeatzen eta kontrolatzen duen bere ikaskuntza, nola asetzen dituen helburu pertsonalak eta zein den horien lorpen maila, eta hori guztia nola erregulatzen duen abian jarritako ekintzetan” (UPV/EHUren Zeharkako gaitasunen katalogoa, 2019).

Gure ikuspuntutik, momenturo euste eta liberazio ariketak burutzearen bitartez, ikaslearen garapen integrala bultzatzen da. Bakoitzaren egiteko moduak aldiro arau eta legearekin talka egitera bultzatzeak, aukera ematen dio subjektuari berak bere burua eraikitze (modu kontziente eta inkontzientean ere). Hau da, artearen bidetik subjektuak bere egiteko era (eta ondorioz bere identitatea) modu gurarizkoago edo auto-gobernatuagoan egituratuko du (Garro, 2013). Era honetan hautematen den ikaspena, ikasleak berak asmatu balu bezala biziko duena da, berak gidatu eta autoerregulatu duelako, eta guztiz desberdintzen da ira-ikasleak berak ezagutza prozesu bat erakusten saiatzetik. Baita prozesua erakutsi eta gero praktikan jartzetik ere. Izan ere, kasu horretan, izan daiteke bereganatze egokia gertatu de-naren itxura ematea (ikasleek lortzen dutelako irakaslearen prozedura jarraituz antzeko lekuetara heltzea, ematen duelako badakitela). Baina arriskua egon daiteke jakingo dutena izateko pentsamendu errepikatzaile baten aplikazioa.

“Ello no implica negar la utilidad de la enseñanza programada para la promoción del descubrimiento: la clave radica en cómo se use. Usada de modo que favorezca el ejercicio del pensamiento productivo y autorregulador, en lugar de adormecer este en la reproducción de datos e instrucciones, puede llegar a ser un valioso recurso didáctico” (Barrón Ruiz, 1993:9).

Garrantzitsua ez da zer deskubritzen duen, oztopoa nola gainditzen duen edo arazoa nola konpontzen duen. Deskubritzen duen horren eta bere akzioaren, hau da, deskubritzen duen eta bere ulertze prozesuaren artean dagoen egitura hautematea baino.

Klasean azaltzen dugunetik aparteko zerbait erakusten du klasearen beraren egiturak. Ikasle irakaslearen posizio fisikoetatik hasita, planteatzen diren ariketetatik pasatuz, eta orokorrean posible egiten den elkarrekintza motarengatik. Nolakoak eta noranzkoak dira egitura horrek posible egiten dituen diskurtsoen norabideak? Esan dezagun arteak dakiena hezkuntzari aplikatuz singularra eta bitxia den horri lekua utzi behar dion egitura bada, diskurtso hori norabide anitz eta laburrekoa bezala irudikatu behar dugula. Erraztu behar du kontaktuak egotea, kontaktutxoak, esango genuke. Hartu-eman asko egotea baina ez modu agerian pau-tatuak, baina bai bilatuak.

“Y estos estudiantes en formación del profesorado están explorando la estética de la relación de enseñanza: en qué momento hablar, el poder del tono de voz, el momento y el porqué de permanecer en silencio, el poder y la sincronización de las imágenes, la metáfora, el humor, la ironía, la historia; cuándo y por qué utilizar sus sentimientos de base para las respuestas...” (Ellsworth, 2005:79).

Lengoiaren balioaz ari zaigu Ellsworth. Konkretuki gure garaian, zeinetan hezkuntzaren inguruko auzi nagusienetako bat den izaki hiperkonektatua eta edozein hezkuntza praktika-ren arteko bateraezintasuna, egungo gazteek pantailekiko eta iruditegiarekiko duten lilura-ren eraginez. Baina irudiz osatutako diskurtsoak baino gehiagoko lilura ez ahal du sortzen aldiro konektatuta egotearen ideia, aukera edo egoera horrek? Konexioa bera izan daiteke gozamina edo gailuekiko lotura eragiten duena. Bergalaren ideiak jasoz, eskolak ez luke amplifikatu behar jada atzerazina den fenomeno hau. Psikoanalisiak orduan gorputz min-tzatzaileak bezala definitzen gaitu, eta pantaila, irudi eta abiadura handiko telekomunikazio-en garai hauetan, hezkuntzarako (jakintzaren inguruan kokatzeko) aurrez aurre esandako hitzaren balioa, hitz performatiboarena, berraurkitzen digu. Oso burugabea ahal da planteatzea agian hezkuntza praktikak hobetzeko modu baterako, ezagutzen dugunetik ez dugula (teknikoki eta formalki behintzat) urrunegi joan beharrik? Pertsonak lengoaiak markatutako gorputzak garen heinean subjektu hiperkonektatuak etengabeko konexio horretan lortzen duen gozamenaren parte bat berreskuratu ahalko dugu mintzamenerako, hau da: lortuko dugu hizketako egintzan beharrezkoa den gozamina eskuratzea istorioak jarrai dezan?

## Erreferentzia bibliografikoak

BADIOLA, T. (2006). *Hay veces en las que uno tiene que poner en escena su propio fracaso*. 2019ko otsailean hemen eskuratua: Galería Moisés Pérez de Albéniz <http://www.galeriampa.com/wp-content/uploads/2014/01/HAY-VECES.pdf>

BARBA, M, CUENCA, M, & GÓMEZ, A. (2007ko maiatzaren 25ean). Piaget y L. S. Vigotsky en el análisis de la relación entre educación y desarrollo. *Revista Iberoamericana de Educación*, 42/7 , 1-13.

BARRÓN RUIZ, A. (1993). Aprendizaje por descubrimiento: principios y aplicaciones inadecuadas. *Enseñanza de las ciencias*, 11, 1-11.

BERGALA, A. (2007). *La Hipotesis del Cine*. Bartzelona: Laertes.

BRESSON, R. (1975). *Notas sobre el cinematógrafo*. Madril: Árdora ediciones, 1997.

CONNELLY, M & CLANDININ, J. (1995). *Relatos de experiencia e investigación narrativa*. Déjame que te cuente. Ensayos sobre narrativas y educación (11-51 or.). Bartzelona: Laertes.

ELLSWORTH, E. (1997). *Posiciones en la enseñanza*. Es: Akal, 2005.

FELMAN, S. (1987). *Jacques Lacan and the Adventure of Insight*. Massachusetts: Harvard University Press

GARRO, O. (2014). El arte y la construcción del sujeto: una reflexión con Nan Goldin acerca de las narrativas familiares. *Arte, individuo y sociedad*, 26 (2), 255-269.

IMAZ, I. (2013). *Esperiencia estética e innovación*. (Re)pensar la innovación en la universidad desde la indagación (153-158 or.). Bilbo: UPV/EHU.

IMAZ, I. (2016ko azaroa). Maitasuna eta pedagogia. *Eremuak*, 3, 4-7.

MARIE, M. (2012). *La Nouvelle Vague: una escuela artística*. Madril: Alianza.



MACHO, M. (2016). Oulipo: Un viaje desde las matemáticas a la literatura. *Tropelías. Revista de Teoría de la Literatura y Literatura Comparada*, 25, 129-145.

NÚÑEZ, JC., SOLANO, P., GONZÁLEZ-PIENDA, J. & ROSÁRIO, P. (2016). El aprendizaje autorregulado como medio y meta de la educación. *Papeles del Psicólogo*, 27 (3), 139-146.

QUENEAU, R. (1947). *Ejercicios de estilo. Versión de Antonio Fernández Ferrer*. Madrid: Catedra, 2007.

RANCIERE, J. (2012). *Las distancias del cine*. Pontevedra: Ellago.

RODRIGUEZ, H. (2003). *Lars von Trier: El cine sin dogmas*. Madrid: JC Clementine.

SÁNCHEZ, R. (2012ko ekainaren 16an). *Precios. ¿Pero ha habido alguna vez “tiempos felices”?*. *El País*.

[https://elpais.com/elpais/2012/06/13/opinion/1339607902\\_043293.html](https://elpais.com/elpais/2012/06/13/opinion/1339607902_043293.html)

STEVENSON, J. (2005). *Lars von Trier*. Barcelona: Paidós Ibérica.



**Kazetaritza digitala ikastea:  
Web komunikabideak konparazio-ikuspuntutik aztertzea  
komunikazio digitalaren kalitatea zer den ikasteko**

*Learning digital journalism:  
Analysing web media in comparative perspective to learn  
what is quality in digital communication*

**Javier Díaz-Noci**

*Pompeu Fabra University (Barcelona, Spain)*

*javier.diaz@upf.edu*

## **Laburpena**

Kazetaritzaren izaera eten gabe aldatzen da. Digitalizazioak, aldiz, ez ditu horrenbeste aldatu kazetaritzak beti izan dituen printzipio nagusiak, baina albisteen produkzioan eta kontsumoan usadio eta nahien aldaketa handi samarra ekarri du. Jakina, negozio-ereduak ere aldatu ditu. Inguru honetan, kazetaritza-ikasleek abilitate berriak landu behar dituzte, ez bakarrik komunikabide digitaletan lan egiteko, idazteko, diseinatzeko. Baita komunikabide digital horiek nolakoak diren ulertu eta aztertu ahal izateko, hainbat ikuspuntutatik. Ikasgaiaren helburua da beste batzuk osatzea, praktikoagoak, eta profil analitikoagoa lantzea, hala nola kalitatea nola ebaluatu ikasteko, ikuspuntu konparatibo eta nazioarteko batetik abiatuta. Kalitatea da, beraz, proposamen honen ardatza, hiru mailatan: enpresa, mezuak eta erabiltzaileen interakzioa.

## **Gako hitzak**

Kazetaritza digitala, ziberkazetaritza, Internet, kazetaritzaren kalitatea.

## **Abstract**

*The nature of technology and journalism is in permanent change. Digitalization has not changed the core principles that underlie journalism, yet it has allowed a shift in terms of habits, capacities and expectations of news production and news consumption –and of course of business models–. In this context, working on and checking the set of structures, activities, principals, themes, norms, and routines that appear to aid journalists (or be missing) in their pursuit of digital excellence is a truly meaningful task for students of journalism. The final goal of this proposal is to complement some other courses, more devoted to coach future online journalist in the skills of web media (newswriting, design, etc.) and provide them with a more analytic profile as well, insisting on the ability to assess the journalistic quality of online media outlets, to define criteria for analysing journalistic content and to critically apply these criteria to media coverage and the recognition of cultural diversity and international journalistic traditions. To this purpose, we propose to assess the quality of digital media on the Internet. Quality in online journalism is therefore the core issue in this proposal. Hence, students will look for the best practices in international news coverage online through three main levels: company, messages, and user interaction.*

## **Keywords**

*Digital journalism, online journalism, Internet, journalism quality*

## 1. Defining the topic. What are we talking about?

The nature of technology and journalism is in permanent change. Digitisation has not change the core principles that underlie journalism, yet it has allowed a terrific shift in terms of habits, capacities and expectations of news production and news consumption –and of course of business models–. In this context, working on and checking the set of structures, activities, principals, themes, norms, and routines that appear to aid journalists (or be missing) in their pursuit of digital excellence is a truly meaningful task for students of journalism.

Whether we talk about online journalism -the preferred name given to it in the 1990's-, digital journalism -the more usual term today, and the one we use in our course-, web journalism -probably the more accurate one, since actually we are not dealing about any kind of digitally produced journalism, but about that one produced specifically for the World Wide Web; for this reason, be do not use the more generic “Internet journalism” term -, or even cyberjournalism -a term coined in Spain by the pioneer scholars who investigated on this form of making news (see Díaz-Noci and Salaverría, 2003)-, the course we introduce is not about the practical skills of the digital journalist, but it is instead intended as a complementary course (for the design of such practical courses on online journalism, focussed on the skills a future digital journalist needs, Machado and Palacio, 2005; Frey, 2013; Ramos Barcellos, 2021. It has certain particularities we would like to explain, since it is focussed on the concept of quality -several types of quality- and it aimed to describe in a more comprehensive way what is to be considered digital journalism.

For practical reasons, in this course we adopt Karlsson and Holt’s definition: “Web journalism is a journalism marked by interactivity, immediacy, hypertextuality, and multimodality produced for, distributed by, and consumed in a graphical web browser” (Karlsson and Holt, 2016). We also adopt a point of view which reflects, in our opinion, the major changes that are happening in both newsrooms and classrooms

Denis McQuail (2010) revised to some extent those distinctive features of news media:

- 1) Digitization and convergence as characteristics of many media.
- 2) Increasing interactivity and network connectivity.
- 3) Mobility and delocalization of sending and receiving processes.
- 4) Adaptation of publication and audience roles.
- 5) Appearance of diverse new forms of media gateways.
- 6) Fragmentation and blurring of media institutions.

